

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA

[47]



Xabier Lete:
sortuz ta sortuz
gure aukera



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Idazkuntza Kontseilua

Idazkuntza Kontseiluburua: Igor Estankona
Kontseilukideak: Elena Martinez, Xabier Mendiguren,
Jon Martin, Juan Luis Mugertza.

Diseinua eta maketazioa: Berria.
Inprimaketa: Gertu Grafikak



Zemoria kalea, 25 behea
20013 Donostia
Tel: 943 27 69 99
Faxa: 943 27 72 88
Posta elektronikoa: eie@idazleak.org

ISBN: 1130-2445
Lege Gordailua: SS-359/90

*Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen
Hegats aldizkario kolaboratzaileen iritzia.*

Joxan Artzek hasitako hitzaurrea	9
Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika	
Jose Angel Irigaray	11
Estalitako egia esanezinen poesia	
Lourdes Otaegi Imaz.....	25
Xabier Lete: guztien lana guztien esku	
Joxerra Garzia	39
Xabier Leteren musika	
Antton Valverde.....	51
Oinarrizko bibliografia eta diskografia	
Xabier Mendiguren Elizegi.....	57
Poema antologia labur bat.....	61

Joxan Artzek hasitako hitzaurrea

Atzo deitu nion Joxan Artzeri *Hegatserako* artikulua bat, poema sorta bat edo otutzen zitzaiena eskatzeko asmoz, eta esan zidan lanpetuta zebilela, zenbait idazlan orrazten ari zela, liburu bateko piezei ordena bilatzen. Esan nion lan astunak direla horiek, ez zela derrigorra baiezkua ematea. Banekien, oster, burua garbitzeko bota zidala aitzakia labur bihozbera, apur batean zutaz aritu ginela-rik aitortu baitzidan egitorduan:

– Ez naiz oraindik Xabierrekin egon.

Lurdesekin bai, haren aurpegi gaztearekin hitz egiten du Artzek, badute elkarren berri. Baina zure heriotzak lur jota utzi du, oraindik ez ei daki zelan hurreratu zugana, nondik hasi, ze larretan. Jainkorik ez duzen sinestunon mundua amaigabea da.

*«Izarren hauts urdina
eta itsas-hegi luzea
besterik ez legokeen
lur errearen beste alde hortan»
(Bigarren poema liburua, 1974)*

Eta kristauen antzera lur eman dizueten fedegabe mistikoon edermenaren ez dago mundu honetan.

*«belaze goitarretako argitasunean
berreskura dezagula maitasun lehena
brisarak gure bekokiak zimurrez garbitzean»
(Egunsentiaren esku izoztuak, 2008)*

Bilatu ezazu zeuk Artze, eta hitz egiozu. Errua, oinazea, zoriona, beldurra eta salbazioa bizien ardura absurdoak direla esaiogu. Jadanik badakizu, zuretzat ez dira ezer: egite onak eta txarrak baizik ez daude.

Igor Estankona
Hegatseko Idazkuntza Kontseilua
2011ko apirila

Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika

Jose Angel Irigaray

Ezaguna da Xabier Leteren ibilbide oparoa, bai poesian bai kantagintzan; batean zein bestean nabarmendutako dohain berezia. Egiatan, bakan da gauzatzen gure hizkuntzaren bizitasun osasungarria hain manera eraginkorrean. Oiartzunen ongi errotua, ahozkotasan eta herri kulturaren —eta hor aipagarria da lekuonatarren itzala, bereziki Juan Marirena— eta, gisa berean, gogoia irekia, munduan kokatua —ingurukoan eta urrutikoan—, biak propioki uztartuz jardundakoa izan da poesia eta kantuen sorkuntzan. Haren poema eta kantuetan memento berean da herri hizkuntza bizia sentitzen eta hizkuntza jaso gozatzen, existentziaren drama eta ironia, euskaldunaren eta giza aberearen patua, poz eta mina, egunoroko irudiak eta arnasa handiko metaforak... Lurrari atxikia eta lau haizetarat zabaldua, poetak inoiz ez du ikuspegia galtzen, non dagoen, zer eta nondik duen kantatzen, bertatik bertara mundu guztian gaindi.

Xabier Leteren poetikan nabarmentzen den berezitasun nagusienetarikoa, doikabe. Horri lotua, gauza eta gertakizunak hitz-poesia bilakatzeko deliberamendu... eta dohaina. Haren hastapenetako poema bat *Gauzen izentatze etengabe bat* da deitzen, eta honela hasten: «*Poesial gauzak izentatzeko era bat da*». Eta sarreran zehazten du: «*Gauzek, ordeak, beren izena behar dute. Eta gertakizunek. Beren izena behar dute, eta izena bilatuz gero leporatu egin behar zaie. Euriari, euri / Aleari, ale / Lagunari, lagun / Etsaiari, etsai / Zoroari, zoro / Eraiketari, eraiketa / Goseari, gose / Egariari, egari / Heriotzari, heriotze / Gorputzari, gorputz / Desioari, desio. Izentatze horrek, gauzen begiratze lehiatsu eta aspergarri horrek harririk mugituko ez duenaren uste osoz. Ez baitatza hortan auzia, ez mirakulu, ez aterabidetan. Eguneroko identifikatze baten beharretan baizik. Denbora gosetiaren sabel izugarri nahaspila gorrotagarrian ez erortzean... Gudari irabazle inoiz izango ez garenez gero, ez gaitezela, arren, gudari ezezagun izan. Hitzak izaten jarrai*

daitezela, desgastez hil edo zentzu argitsu indartsu berri batez jantzi ditzagun bitarte. Hitzak izaten jarrai daitezela». Honaraino Leteren hitzak. Poesiari buruzko paradigma bat.

Ondorioz, ongi dakigu, hainbat eta hainbat sentimendu, poz eta min, galera, amets, ... eder, zehatz eta indartsuki zituen izendaturik utzi, uztza poetiko jorian.

Lehen idatziak *Muga, Oarso, Jakin* eta, bereziki, *Zeruko Argia* –«Gazte naiz» eta «Kultura gaiak» sailetan– aldizkarietan plazaratu bazituen ere, poesia dago Xabier Leteren literatur ibilbidearen hastapenean. Joan den mendeko 60ko hamarkadan hasia, era jarraikiagoan 1964. urtetik aitzina. Hain zuzen, garai horretan idatzitakoak Donostian antolatzen zen Agora Sarian irabazle gertatu ziren, 1966 eta 1967 urteetan. Bilduma horietakoak izan ziren bere lehen poesia liburuan plazaratuko zituen poemak, *Egunetik egunera orduen gurpillean* (Cinsa-Hegosa, Bilbo, 1968).

Garai berean, baina, Ez dok Amairu taldearen sortze dinamikan txertatu zen eta, laster, ia ustekabean, jendaurrean kantatzeari ekin zion. Segidan nabarmendu zen kantatzeko era indartsu eta sinesgarriagatik –ahotsa lakar, ahoskatze zehatz eta garbia–, kantu-testuen mailagatik, herri tradizioan txertatuak bezainbat goi mailako poetikan, berau zabaldu eta aberasteagatik...

Urte horietan ondu zuen sorkuntza eta izan zuen eragina –musikan eta poesia mailan– baitezpadakoak izan ziren, taldean eta, oro har, euskal kulturaren gaurkotze eta garatze prozesuan. Hasieratik nabarmentzen zitzaizkion herri kanturako dohain berezia, garaiko arazoekiko sentsibilitatea, ironia eta kezka existentziala. Nola ez oroitu lehen urteetako *Lore gorrien balada*, *Alzateko Jaun*, *Kontrapasa* edota *Giza aberea* bezalakoen ondoan Detroiteko beltzen aldeko *Ez kanta beltza* kantu deiadarra, Viet-Namgo gerlaren kontrakoa edota *Txile* kantua. Ondotik etorriko ziren *Nafarroa arragoa*, *Ni naiz*, *Xalbadorren heriotzean*, *Habanera* eta beste hainbat. Askok zinezko mugarri euskal kantagintzan; baitezpadako erreferente bilakatuz, taigabe elikatzen dute subkontzienteko kolektiboa.

Kantu horiekin bost disko plazaratu zituen. Lurdes Iriondorekin batera beste bi, kantu berriekin eta herrikoiekin. Horiez gain, *Bertso eta kopla zaharrak* disko bikoitza, Antton Valverde eta Julen Lekuonarekin, *Txiritaren bertsoak* disko bikoitza Antton Valverderekin, eta, azkenik, *Berrehun urtez bertsoan*, zazpi disko bertsolari-tzaren antologia gisa. Denera 18 disko.

Ez Dok Amairu taldea desegin eta ondoko urteetan, bi arlo-etan jardun zuen. Kantagintzan, bakarka, Lurdes Iriondorekin, *Zazpiribai* ikuskizunean (ipar eta hegoko zenbait kantari bilduz), Antton Valverderekin... Eraitza: aipatuetariko zenbait kantu eta disko, kontzertuak... Letretan, hainbat hitzaurre, artikululu eta kolaborazioz gain, poesia idazten: *Bigarren poema liburua* (Gero, 1974) deitutakoan, aurreko ezaugarriekin batera, poetika helduagoa eta zalantza existentzialaren eragina nabarmentzen dira. *Urrats desbideratuak* (Gipuzkoa Kutxa Argitalpenak, 1981) 1980ko Irun Hiria saria izan zen lanean, berriz, etsipena eta ezkortasuna hasten dira poetaren mundua errotik tindatzen. Hurrengo *Zentzu antzaldatuaren poemategia* (Euskaltzaindia-BBK, 1992) da, erakunde horiek antolatuturiko Arrese-Beitia lehiaketa irabazirik; *Biziaren ikurrak* (Erein, 1993) izenekoan, berriz, aurreko liburuko poemategiaren atal oso bat erantsi zuen. Bietan, eri handi izan ondoren onduak, izpiritualitatearen xerkako desmarta deliberruan azaltzen da; bizitzeko euskarri diratekeenak izendatuz, hitz-poesia bilakatuz, egiazki gauzatzen has zitezen. Azken urteetan, *Rilke, Orduen Liburua* disko-liburua (Pamiela, 2004), txekiarraren hogeita hamar poema Karlos Gimenezek pianoz lagundurik. 2006an *Abestitzak eta poema kantatuak* (Elkar), kantu bilakaturiko bere poemien bilduma argitaratu zuen.

Azkenik, *Egungentziaren esku izoztuak* liburua dugu. Hamabost urte bere poemarik argitaratu gabe egon ondoren 2008ko abenduan Pamielaren eskutik plazaratua. Bertan, menturaz inoiz baino modu erabatekoagoan, aurreko liburuetan nabarmendutako gai, arrangura eta kezka, estilo, taxukera, hizte-

gia..., hots, Leteren mundu metaforikoa, hiztegi poetikoa, gauzatzen da. Aspaldian bizi izanikako esperientziak –osasun arazoak, galerak, heriotza...– gogoetatuz eta hitz bilakatuz, ohi bezala azala eta mamia egoki uztartuz, poeta lurralde sakon eta sentituagoetan, zinezkoagoetan, murgiltzen da, ezinago sinesgarri. Inoiz baino gehiago nabarmenduz existentziarekiko kezka, sentimenduen munta, oinazea, denbora, galera zentzua, erredimitua-edo izateko beharra... Zentzu horretan, mugarri berezia da, ziklo osoa hetsi nahi izan balu bezala. Hainbat non, zantzu guztien arabera, behin eta sentipen eta egitateak poesia-hitz bilakaturakoa, poeta bera osatuxeago jalgi baitzen liburua ontzeko eta plazaratzeko prozesutik; agian, bizitzaren aro ezinago berezia pasatu izanaren eta (bere buruarekin haste) zituzkeen zorrak kitatu izanaren ondorioz. Liburu horrek 2009ko Literaturako Euskadi Saria jaso zuen, baita urte bereko Espainiar Literatur Kritikoen Elkartearen poesia saria ere. Liburuaren osagarri gisa DVD bat argitaratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuaren laguntzarekin (Pamiela, 2009), eskaini zituen errezitaldietako bilduma gisa. Xabier Lete bere azken jardun poetikoan ikus-entzuteko lekukotasun bakana.

* * *

Kezka sozialaren eragina nabaria bazen ere, orobat esperimentazioarena, hastapenetik nabari da Leteren poesia sentipen eta kezka pertsonalez zeharkatua dela; existentziarekiko «dardara dramatiko», Juan Mari Lekuonak izendatu zuen bezala: *«ltz dardartsu hoietan, beraz,/ ezin bestean/ nere etxea, gure lurra, euriaren tristura epela,/ illunabarra ta egunsentia daude./ Eta gaiñera,/ batez ere,/ eguneroko lagunaren giroa, kezka luzeak,/ neskatz bat,/ egin behar ez ditudala segura dakitan/ gauz ugari,/ eta agian noizbait egin beharko ditudan/ bat edo bi...»*. Ahapaldia 60ko hamarkadakoa da, lehen poemen artekoa eta *Egunetik egunera* orduen gurrpillean liburuan argitaratua (Cinsa/Hegosa, 1968).

Baina, nahiz berak aitortzen duen «neretzat oso zaila izan da beti poesia argitsua eta baikorra idaztea» egia izan, ene aburuz, horrek bere poetikaren funtsezko beste osagai bat lausotzen du: zirto ironikoak duen munta, bere buruaz kitzikagarriki trufatzeko bezala beste hainbat gai lotsagabe, are mutiri, tratatzeko era osasungarria. Nago horrek arnasa osagarria ekarri izan diola beti, poesian eta bizitzan.

Inguratzen zuen munduarekiko arbuioa, kezka existentziala, herriaren aldeko lehia, ironia, zirto eta kitzika... dena aski nahas-mahas hasiera hartan, fresko, ausart. Zintzo ere bai: bere burua eta inguruarekiko jarrera paradoxala, adibidez, lañoki adierazten zuen *Poeta hoiek* –kantu ere bilakatu zen– poeman: «...Ai, poeta! Gogorra izango da zuretzat Askatasun Eguna». Bikoiztasun hori, poeta eta ingurua, gisa berezian garatuko zuen gaia da. Hasieran aski modu paraleloan, oraintxe uztarturik, oraintxe jare elkarrengandik, are elkarren aitzia. Baina, funtsean, bere buruarekiko arrangurak modu sinesgarrian txertatuz eta islatuz herriaren eta jendartearen patuan, beti bertatik kantatu baitzuen: «Zelai ertze-ko lore gorriak/ neguak zapuztu ditu,/ neskatzaren ezpain eriak/ nork lezazke laztandu,/ gure herriko baratzak diral/ lorerik gabe gelditu...».

Berrogei urte berantago, jada aski galdutzat bizi zituen herriaz eta jendeaz, galera sentimendu hori poesia bilakatzearen taigabe-ko afanean, gerla garaiko aitaren belaunaldiaren ankerkeria gainditzeko gaitasunaz eta duintasunaz dihardu; gorazarrea egiteaz gain, bere patua harenaren idera du irudikatzen, bat eginez galduen alderdian: «Ezagutu ditut gerla galduetatik/ solas hain gutxirekin itzulitakoak,/ jokatua zuen bakoitzak bere zortea/ ongi ulertzen ez zituzten lehiagunetan,/ isilik zeuden beren lan eta etxeetan/ ibiliak zirelako intxortetan eta artxandetan (...)/ haien ohore apalean kontsolatzen naiz/ galtzaile ni ere beste gerla batean, beste ataka batzuetan».

Kezka pertsonala eta kezka kolektiboa. Bere garaian, gaztetasunak, osasunak eta arrazoimenak, hein batean bederen, neurrian

bizituak, moldatuak eta eleder bilakatuak. Kezka existentziala nagusitu ahala, baina, eboluzionismo eta zientziaren makulua funtsezko bilakatuko zaio. *Izarren hautsa* ezagunaz gain, hau ere kantatzen zuen: «*Sinesten dut/ egun batetan hilen naizela/ hutsean eroria/ ezerezean amildua/ hauts bihurtuko naizela./ Sinesten dut/ hartuko nauen lur hortatik/ landare berriak/ sortuko direla,/ landaretatik zuhaitzak/ zuhaitzetatik loreak/ loreetatik fruituak,/ fruituetatik/ gizonak eta abereak/ bazkatuko direla*».

Hain azalpen erabatekoak diren *Izarren hautsa* eta *Sinesten dut* poemak, hasierako freskotasuna atxikiz, poetika helduagoa eskaintzen zuen *Bigarren poema liburua* deitu zuenekoan agertu ziren, nahiz lehendik eginak izan. Sentimenduetan oinarrituagoa, zalantzak ere lehen baino ugariago azaltzen dira, naturaren bilakakeraren zentzuan kokatuak, agnostizismoa oinarrian materialismoa garapenean. Nola ez oroitu Lukrezioaren *De Rerum Natura* liburuaz, *avant la lettre*, askatasunaren materialismoari buruzko azalpen eta aldarrikapen filosofiko-poetikoa («*Natura librea da, / nagusirik eta jainkorik gabea, / inposaketa edota hertsadurarik gabea*»). Baina Leterengan larritasuna ez da aise ematen. Aurrekoen garaiko poema batean honela zioen: «*Zakurrek jan bezate/ esperantza, / zerrien bazkari bihur dadila/ justiziaganako ametsa, / astoek zanja ditzatela/ injenuitatearen loreak, / ziminoek likistuz hondatu daitezela/ uste onaren irrifarrak (...)/ ezerezen aurrean/ osotasun bilakatuko gara, / horrela/ gizon izanaz*».

Poemak aski ongi adierazten du poetaren dezepzioa, eta nahiz oraindik zientziaren makuluan pausatzen zen, hondoraino iritsi beharra zen, nihilismora. Hor kokatu zen hurrengo poema liburua, *Urrats desbideratuak*.

Balizko esperantzak hondoraturik, bai pertsonal mailan bai kolektiboan, porrotak elikatzen eta zeharkatzen du poesia. Ezkertasun nietzschetarrak etsipenera darama: «*Esku izoztuak luzatzen dizkiot/ gau sakonari arrenka, (...)/ Zama hartu eta aurrera jarraituz/ irterarik gabeko ibilbidetan, / erantzunik gabeko gauitsuak/ beste egunsenti zikinago bat/ halabeharrez erdi dezan*». Artean ere «esku

izoztuak» zen eta dezepziozko lurraldean jalgibide guti. Agian bakarra, ihesa. Eta errealtatetik ihesarekin batera ustezko baloreen mundua eraisteko joera. Bidenabar, nabarmen utziz aurreko sinesmena: «*Maitasuna maitasuna/ romantikoen uharte,/ penak desegingo zaitu/ odola izoztu arte*». Eta ildo beretik: «*Etsipenaren uharte gorrian/ naukazute orain/ deserriratu,/ ez dakit zenbatgarren ekaitzak/ bultzatu ninduen hara,/ ez naiz iñoiz itzuliko/ aspaldi amaitu baizen/ sekulan helbururik izan ez duen/ bidajea*». Poeta ilunpe horietara iritsi izanaren gakoetarik bat haren behialako historia izan daiteke: «*Desolaziozko basamortuetan/ aurkitu nahi banauzuel jarrai haratago haurtzaroko iturburuetara*». Beste bat, Letek esplizituki nabarmentzen zuen —tradizio judu-kristauan hain baldintzagarri eta eraginkor den— errudun sentimendua; hain zuzen, aurreko pasartea *Kulpa* ezarriak poemakoa da.

«Ihesean», herriarekiko atxikimendu eta itxaropena ere arrakalaturik geldituko dira. Eta, jakina, arrazoi objektiboak inoiz ez dira eskas izaten edozein ihes garatzeko garaian. Herri mailakoan ere ez. Heriotza utopi izendatu dutenei poema hor kokatzen da: «*Herri dokabeal gu denen herria,/ besterik izan ez ta/ hain baita gu-rea,/ hain gorrotagarria/ hain zentzugabea/ hil nahiago duena/ bizi izan baino,/ ekaitzek ingurual jan diotelarik...*». Hala ere, badu kalipurik herriarekiko leialtasuna aldarrikatzeko: «*Eta aberria, orain/ lotsaldi eta erorka guzien izandapena zait (...)/ Ez gaitu maitasunak batzen, ikara larriak baizik./ Horregatik natzaio agian leial aberri dohakabe honi*». Orobat pertsonal mailan: «*Baina iñork ez nau herbesteratuko/ zentzuen aurrean oparo datzaten/ aro ederren siñuetatik/ margo eta usai/ ihintz eta lanbro/ zuhaizti itzaltsuen kaligrafia miresgarritik*». Natura, aterbe izateaz gain, indar eta atsedeen iturri bakar gisa.

Baina bizi mina, oinazea... eta egoa, ez dira aise laketzen nihilismoan (nahiz balirudikeen poeta jarrera-kokapen horretan «lake-tzera» ere iristen dela). Bere buruaz beste egitearen bidea hautatu ezean —«*Alferrik baita guztia/ azken fineko legetan/ kuraia ez balitz aski/ bideak eraikitzeko*»—, eta ez da kasua, hutsa berdindu

lezakeenaren xerka ematen da. Naturak eta materialismoak existentziaren zentzua eman diezaiokete, heriotza ulertarazi, baina ezin diote ezerezarekiko auzia xuritu, ezta hilondokoaz lasaigarri-rik eskaini ere. Eta aitzitikoa nagusituko zaio, izpiritualismoa, orokorra zein erlijio zehatz bati lotua. Hein batean, hor kokatuko da handik goitiko Xabier Leteren poesia, nahiz beti arrazoimenaren eraginez ondua izan eta ez gutitan bere usaiako osagaiak han-he-menka nabarmendu. Jakitun izanagatik ere bizi-mailak materiaren bilakaeraz eta eboluzioaren eraginez baizik ezin direla gauzatu, jainkozko entitatea du sortzen bere nahikari eta izuen idera, aski rilketar eran. Fatalismoak ez dezan eraman erabateko etsipenera jainkotasuna du deitzen, konbokatzen; haren balizkotasunean da aterbetzen. Berraurkikuntzan sinetsi nahi/beharra, beraz, zalantza eta autotroponpatzeak gorabehera. Egia erran, gizateriak ez du besterik egin bere bilakaera luzean.

Poesiak ezin heriotza berrerosi, baina bizi-larrimina eztatzen lagun dezake, are liseritzen, besteak beste, min-izu hori exortzizatzeko aldera, hitz bilakatuz. Zenbat eta hitz zehatz eta eraginkorra, gainbat eta osatzaileago. Leteren kasuan bilakaera nabarmena, nik uste.

Arnasaz handitu, egituraz sendotu eta mailaz garatuagoko poetika eskaintzen zuen *Zentzu antzaldatu*en poemategia lanean, adibidez, bada hori dena —nihilismotik izpiritualitaterako bidea, ez ordea xuri-ta-beltz gisan— islatzen duen poemarik. Desolazioko lurraldean bada arrazoimenaren printzarik, baina funtsean ezkor dago: «*Egusentira leihoratu naiz, gogoetekin hain ilun, / txiro eta nekaturik desio ezinezkoen / sakabanatze urdurian, / jainkoak ukatuz eta haien altxor preziatua, dohaina; / izadia eta itxaropenaren artean, erdian ni, / bakarrik, harro ene bilaketa etsiperatuan*». Zalantza eta guzti, baina, salbabide zaion izpiritualitatean murgilduko da: «*Zenbat aldiz, Jauna, gau beltzak didan estali / izpiritu asalduaren argi suspertu berria / eta adinenaren hondakinetan naizen etzan urduril / amor emanez biziari jakituriaren liburu hertsietan...*». Garai berekoa da: «*Gorde nazazu, Jauna, / gorde nazazu neronengandik lehenik /*

beldur handiaren arratsalde hontan, (...) / Gorde nazazu, Jauna, / ez arerioaren ezpata garratzetik / itxaropen izugarri honetatik baizik». Mistikoen izpiritu oinazetua oroitarazten du, nahiz beti nabarmentzen zaion, eta are nagusitzen, bere lurtar talantea...

lhes guztien jatorria den heriotzak, beraz, bilakaeran aitzinatu ahala bere poesia osoa kutsatuko du, ezkortasunak arlo gehienak «hunkituko» ditu.

Adibidez, herriarena. Gertakizunak «lagun» –beti kausi daitezke zuribideak– zalantzan ezartzen zuen lehenagoko leialtasuna: «*Aberria, berriro, lotsa makurraren izendapena zait / senideen begietan gorrotoa eta mespretxua / ikusten ditudanean harro eraikiak susmoaren ikur (...) / Nor izango zaio oraindik leial aberri dohakabe honi?*».

Egungentziaren esku izoztuak liburuan, bestalde, bizi-min hori poesia bilakatzean, aski jabalduran dihardu: «*Eskua luzatuko duzu / eta ahots batek erantzunen dizu / “ez dago amoinik xahutzaile zoro-entzat”, / orduan bideari begiratuko diozu / eta ez duzu han / egun beti berdinen gristasuna baizik atzemanen, / inorenak ez diren ordu erori horiek / izanen dira zure gogoetagine, / igarotzen zara iraganeko lurraldeetatik / jaso nahirik irudietan antzinako argiaren / gardentasun asaldatuak / garisailen gerriburu urretsua / mahastien lerrokatze hornitua, / baina dena dago erreten zikinduetan atxilotua / ez baita izadiaren beira horretan / zoritxar handi bat baizik isladatzen, / orain ohartzen zara ibar argitsuak / beti haratago daudela / beste lurraldeetan, herbeste urrunean, / eta zuri ez dagokizula / itsaso beltzaren hegietan idatzia izan zena / oroitzea baizik / missus in hanc venio timide liber exulis urbem*».

Amaitzeko ematen duen latinerazko perpaus hori –hiri honetara igorria, erbesteratu baten liburua naiz eta beldurrez iristen naiz zuengana–, hain zuzen, Ovidioren *Tristia* lanekoa da –bidenabar, badagoke zer aztertu frango Leterenean ugari diren zita edota keinuen arloan–. Jakina da *Ars Amandi* poemategi ezagunaren egi-lea, Zesar Augustok Itsaso Beltzeko Tomis hirira –egungo Constanza, Errumanian– erbesteratu zuenez geroztik, kexu eta

penetan zela, abaildurik erabat. Ovidio rentzat erbesteratzea hiltzea bezalakoa zen, handik idatzi eta igorri poema-gutunak nostalgiaz, erreguz eta oroitzapenez beteak ziren; Leterentzat, berriz, hizpide duen erbestea ez da «hiltzea bezalakoa», berak berraurrikuntzaz mamitu nahi duen *Thanatos*-en itzalpeko ezereza bera da. Baina ezin handik gutunik igorri adiskideei, ez oroitzapenik ez deus. Hortik etsipena nagusitzea: «(...) /ez, apirila ez da hilik triste-ena/ urtariletik abendura dira denak uzkurak/ lur antzuan bizi gare-nontzat,/ guk antzutu genuen lurlean/ zauritutakoentzat ahazturaren hilobiak eraikiz/ hori da bizitza deitzen duguna/ eta ongi dakizu ez ge-nukeela/ erruki apur baten eskubiderik/ joan zitzaizkigun haiek ez ba-ligute/ amoroski barkamena dohan eskainiko (...)».

Jainkorik ez da agertzen; joandakoen barkamena, maitasuna, date kontsolamendu bakarra. Atarramentu osasungarria poesia... Arestian aipatu Gauzen izentatze etengabe bat poeman zioen eran: «Poesia/ gauzak izentatzeko era bat da./ Beraz/ ez dizut/ lorete-gi aberats ugaria/ erakutsiko/ ez izarren ordenarik/ agertuko./ Gure bi-deak ez darama/ eskainitako hirira/ bide soila baizik ez da:/ gauzen izentatze etengabe bat...». Eta, gainera, izendatze zehatz eta esanguratsua, gaiari eta bere garapenari —erritmoa, metaforak, hizte-gia...— dagokienez. Poesia, era zehatz bezainbat esanguratsuan garatzen den jarduera terapeutikoa delakoan...

Leterentzat «ezin daiteke esan poemaren “gaia” poetaren baitan ez zegoenik, horrek suposatzen dituen eduki atal konplexuekin (sentimenduak, bizitzaren esperientzia, haustura-guneen kontzientzia, gale-ren barne-izendapenak), baina, era berean, gai horrek, formarik ezean, ezin zezakeen adierazpenik izan hitzek (lehen hitz argitu, harrigarri, misterio-tsuek) ibilbidea agertu ez baliote; eta agertu esatean ez da agerpen diskurtsiboa adierazi nahi, ikuskatze mistiko baten pare lego-keen beste “agertze” mota bat baizik. Hitzak beti baitira harrigarriak, eta neurri batean arrotzak ere bai, beste nonbaitetik etorriak poemaren lurraldera».

Hitz etorriak... eta arrazoiaren bidez propioki eta osoki adie-razi ezin dena, «erran ezinezkoa», hitz poetiko bilakatuak. Baina

«oinaze eta sufrimendurik gabeko esperientziatik ezin daitekea egiazko poesiarik sortu. (...) Iraganarekiko bidaia beti berritua da, eta gogoeta esparru, han baitaude gure kulpak, gure desleialtasunak eta gure kontzientziaren urradurak». Horretan bat egiten du hain maite zuen Salvador Espriurekin, poesiagintza ia osoa heriotzarekiko irudien inguruan gauzatzen zela baitzioen katalan poetak, etengabeko gogoeta edo meditazio moduan.

Letek *«oso zaila izan da beti poesia argitsua eta baikorra idaztea»* dio. Besteak beste, estimu handitan zeukan Salvador Espriuren antzera, katalana poesia malenkoniaren hizkerez mamitzen dela pentsatzen dutenatarikoa baitzen. Oiartzuarrarentzat, agian, areago: kulpaz, hobenez eta erruaz. Poesia, beraz, sentimendu hori hitz bilakatzen den heinean, eta hitz publikoa, damubide date, berrospena edo erredentzioa bilatzen duena. Sorkuntza gehienetan bada horretarik zerbait; hortik maiz duten eragin terapeutikoa. Baina, Joan Margaritek dioen bezala, arte espresio-bideetan dautzakeen sortzailearen minak unibertsal mailara ekarri ezean, nikerian murgil eta itorik, emaitza nekez izan daiteke goi-arnasakoa. *Egunsentiaren* azken lana aurrekoak baino narrati-boagoa da; besteak beste, agian horregatik, bizipen eta minen «biluzte» horretan, batzuetan, patetismoaren mugetan dabilelako itxura har daiteke, ezinbesteko balitzaio bezala, poetikoki... eta pertsonalki.

Dena den, iruzurrik ez. Letek garbi uzten du zein diren berarentzat poesiaren izaera eta zeregina, non kokatzen den bera. *«Poesiak aldarrikatzen digu bizitza galera dela, denboraren haginean artean kraskatuak eta deseginak izatea. (...) Hitzek ezin dezakete bizitza erredimitu, eta are gutxiago heriotza. Hala ere, heriotzarekin lehian pentsatzen dugu, idazten dugu, gure hondarrak, gure aztarrenak salbatu nahirik; baina heriotzaren esperientziak hesten ditu bizitzaren eta poesiaren ibilbideak. Eta azken-azkenean, biluztuen bakardadera eta oroitzapenen egoitza mingarrietara eramanak izan garenontzat zer gehiago geldituko litzateke. Gogoeta bat, agian, eta begiratze bat noizbait aberriaren lurraldeak izan ziren haietara; urru-*

neko egoitza misteriotsuak, guttika-guttika gure bizitzaren gertagune eta aldaguneetan urratzen, desziurtzen eta itzaltzen joan zaizkigunak». Garbi dago, Leteren poesia min eta galera sentimenduan loratzen da, ez zaio interesatzen beste poesiarik. Horretan bat dator pentsatzen dutenekin goi arnasako literatura, zer esanik ez poesia, min eta galeraren lurraldean baizik ez dela loratzen.

Hizpide dugun liburuko *Negua Venezian* (1998) poeman, adibidez, horrekin denarekin –galeraren mina, oroitzapena, existentziarekiko kezka, gizateriarenganako dezepzioa...– poiesis bat du ontzen: «*Isilik, ihes zihoan arratsaldean ontzia/ ezpondetatik haruntzagoko itsasoruntz/ ahazturak gizakumeen ametseil/ destainu dagien erresuma urrunera, (...)*».

Edertasunez bezainbat nostalgiaz hornituriko mikrokosmos berezia, Venezia, egoki gertatzen zaio bere malenkoniaz gain, existentziaren joan-etorriak, patua, irudikatzeko. Eszenatoki horretan du poetikoki bilbatzen, maitearekiko loturan, bere oroitzapen eta sentimenduen mundua. Vivaldiren musikaren oihartzunak ferekatua, areago, agian, maitearekin batera onduriko bizitzaren aldeko aldarriak: «*(...) hemen gaude, esan genion elkarri,/ bizidun umezurtz, baina hemen gaude oraindik (...)*». Historiaz eta edertasunez hain hornitua den hirian Herioren itzala sentitu ohi da zeharka, areagotuz, agian, pertsonal mailako larritasuna. Kotsolamendu bakarra: maitasunaz eta beronen eraginez oroitzapenera datorren musika... Eta, literaturaz eta existentziaz ari garenez, hori dena poesia idatzia bilakatzea.

Hain zuzen, bere jarduera literarioak hori baizik ez du adierazten: poesia-literaturak, lehenengo eta behin, egileari berari egiten diola on; ondotik, agian, oro duindu gaitzakeela, ederretsi. Horren adibide da liburuko *Obababako lurraldeari begira* ataleko poema sorta; haien artean: «*Urtarrileko eguerdi batean igo nintzen/ gailurrean datzan hilerri isilera,/ galdutakoei erreoparia eskaini nahi izan nien/ baina hain nengoen eskuhuts/ hain umezurtz, hain herabel/ ez bainuen adorerik izan argizari bat pizteko ere.../ (...) / ez gaude bakarrik, eresiek, poemek laguntzen gaituztel/ eta bizitzaren muinean oi-*

*nazea antzeman zutenek,/ haiekin nengoke, haiengan naiz / joan zire-
nekiko azken enkontrua arte.../ eta negar egin nahi izan nuen/ hau-
tsi, hustu landa babesgarri haietara,/ ederresten nuen arbasoen
aberrian ahuspeztu,/ aitortu, amore eman, apaldu, senidetu,/ norbai-
tek irakatsia zidalako/ gizagotzen gaituzten amodioen hiztegia».*

Literatura, beraz, giza kondizioa duintzeko jarduera date Lete-
rentzat. Ez salbabide delako; bai, ordea, konpartitzen den heinean,
elkar kontsolatzeko jarduera gisa. Poeman, berriz ere bere egoera
mindutik abiaturik, ezin berdinduz galera eta nostalgia, sosegu eta
are arnasa ematen dio literatur lurraldea ikusi eta, batez ere, sen-
titzeak.

Beti ere, sinistuz «egunsentietan kulparen zamak kolpatzen gai-
tuela jakitea, horretaz konturatzea, hori da poesia, eta jakitea maite
dugun guzti hura iragankorra dela, hauskorra; maite ditugun izaki eta
pertsonek ezin ditugulako zoritxarretik eta heriotzatik libratu. Poesia,
beste era batean esateko, otoitz etsiperatu bat izango litzateke gure
izate iluna nora ezera daramaten jainko uzkurrei zuzendua». Usteka-
bean bezala jainkoak agertzen dira, hola pluralean, uzkurrak eta
nora ezera daramatenak, gainera... Sinistu nahi duenaren azpitik
zinez sinisten dena ez ote den agertzen, funtsezko agnostizismo
baten isla, ez bada gehiago.

Otoitz etsiperatua izateaz gain, beraz, bestela adierazi ezin di-
renak elelderrez errateko jarduera ere bada poesia, galerak eta mi-
nak berdintzen saiatzeko heinekoa. Adibidez, 2005gn. urteko
azaroaren 27an, igandea, Lurdes bisitatzera erietxera nindoala izen-
buru-azalpena daraman poema. Nire aburuz, Egunsentiaren esku
izoztuak liburuko gailurretarik da, modu berezian laburbiltzen
duena azken denboretako Xabier Leteren poetika: «Azaroko arra-
tsaldean elurra ikusi dut/ Bianditz mendiaren hegai-gailurretan,/ xuri
hartan begirada itsatsirik/ “berriz ere negua atarian”/ esan diot ahots
apalez nere buruari,/ zer nolako hunkidura elur xurienea/ nerabeak gi-
nanean herri galdu hartan.../ begiratzen genituen bortuak, mendile-
rroak/ eta han ekialdean Nafarroa zegoela esaten ziguten,/ Lesaka,
Baztan, Añamendiak/ haratago Europako erresumak edo agian Erru-

sia/ ez baikenekien noraino ailegatzen zen mundua,/ baina mendilepo hurbil haietatik zetorkigula dena/ hori ongi genekien gure ezjakin eska-sean,/ hodeiak, ekaitzak, elurrak eta negua,/ eta izendatzearekin erai-kitzen zirela gertakizunak/ eguratsen aldaketak iragarri eta halabehartuz.../ gero laster eguberria genuen atarian/ eta Olentzero ikazkina menditik jaisten zenean/ sua eta mezua bailarara ekarriz/ gu-re bihotzetan zilarrezko txintxarriek/ errepikatzen zuten zorion harri-tuaren/ doinua.../ penaz begiratzen genien orduan zoritxarrekoel/ eta haiengandik hurbilago ginen sentitzen/ zorteak onizatearen atari epe-letatik uxatu zituelako.../ gaur, izan ginen hartatik/ ia ezer ez denean geratzen/ berriro xuriz jantziak ikusi ditut mendiak,/ ekialdeko bortue-tara begiratu dut hunkitua/ eta barnearen barne barneratuenetik es-natu zait/ denboraren abaraskaren pean/ estalia zegoen kantua:/ goiko mendian elurra dago, errekaldean izotza».

Bere oinazetik abiatuak —jada oso larri zegoen Lurdes bisita-
tzera— hitz gutirekin inguru oso bat ez ezik —bizitu eta ezaguturi-
ko mundua, ororena izan daitekeen mundua— behinolako garai
bat ere ikusarazten du maiteki. Nostalgiaz, malenkoniatsu..., bai-
na ez negarti. Galtzeaz dagoen maitearekiko nostalgia. Biak ala
biak atarramenturik gabeko gisan bizituak edo, hobeki erranik,
maitearenak bestea hala hartzerat eramana, eta alderantziz: haur-
tzaroko geografia-bizikerak maitearena konformidadeagoan-edo
onartzera. Eta bere nostalgia-mina hitz bilakatzeaz giza kondizio-
aren minaz ere ari da, guztiongan datzan poetikotasunean: bizitza
eta munduari izari eta ostertz ezkutuak sentitu eta ikusaraziz. Ga-
leraren minak —sobera sinesten ez duen— jendartean jabaltzen
dela dirudi, —galdutzat ematen duen— herri jakindurian; funtsean,
—bere barne barnekoenetako abaraskapean estalirik zetzan— he-
rri-eresian: «goiko mendian elurra dago, errekaldean izotza». Bizitza-
ren dialektika gazi-geza bailitzan, ez salbabidetzat, bai, ordea,
kontsolamendu gisa. Eta, bizi-minean bazen ere, hori dena izenda-
tutakoan, agian, osatuxe eta konformidade(ago)an geldituz.

Giro horretan zela, itzali zen poetaren ahotsa. Ondu zituen po-
esia eta kantuetan, baina, biziraunen du euskaldunen menturan.

Estalitako egia esanezinen poesia

Lourdes Otaegi Imaz

Xabier Letek hitzaurre, elkarrizketa eta bestelako saioetan bere poesiaz adierazitako hausnarketaren uztza ez da beti kritikoak nahi lukeen bezain zabala, baina bai haren ibilbidearen urratsak modu egatian ezagutzera emateko ahaleginaren lekukotza. Azpimarragarria da alde horretatik azken hamarkada. Hilburuko poetikoa ehuntzen ari izan balitz bezala, *Abestitzak eta poema kantatuak* (2006) bildumaren hitzaurrean hausnarketa zintzoa egin zuen egileak, eta amaieran erantsitako bi elkarrizketen bidez osatu zuen. Hein berean da aipagarri *Poesiaz gogoeta bat* (Pamiela, 2008) liburuxka, non bere ideia poetikoen sintesi lan bati ekin zion, aurreko liburueta hitzaurreetako ideia batzuk berridatziz. Horrela, bere ahoz ezagutu ditugu bere sustraiak (bertsolaritza, herri kantagintza, kantautore frantsesak eta kataluniarrak...), bere zaletasun literarioak (Dostoievski, Tolstoi, Camus...) eta estetika gaiez azken urteetan garatu zuen hausnarketa poetikoa. Ondare hori oinarritzat hartuta, ondorengo lerro hauetan Leteren ideien eta balorazio kritikoaren arteko esparrua jorratzea da nire helburua, kritika xeheagoak bere obraz egingo duen epaiaren ildoak izendatze aldera.

Leteren poesiaren bilakaeraren lekuko dira argitaraturiko sei poesia liburu nagusiak, nahiz eta testu labur ezezagunagoak eta testu grabazioak ere aintzakotzat hartzekoak diren Leteren obraz hitz egiterakoan. Bi multzotan bilduta aurkezten dira haren obrak, bien arteko mugarri delarik 1986ko urtea. Lehenengo hirurak, *Egunetik egunera egunen gurpillean* (1968) *Bigarren poema liburua* (1974) eta *Urrats desbideratuak* (1981) bateratsu har litezke. Trazu nagusitan deskribatzeko, lehen idazlanetan poetak gizatalde batean edo gizaki orokorrarengan ezarri zuen ardatza. Aberriaren, gizarte auzien eta historiaren inguruko hausnarketen adierazpen da bere obra. Gizateria osoaren auzien inguruan dihardu funtsean, eta giza existentziaren eta heriotzaren zentzuaz galdetzen du.

Utopia sozialen, kezka existentzialen eta Jainkorik gabeko giza-terriaren larriduraz dihardu bere poesiak, eta horregatik, euskal poesiaren historiak olerkari sozial eta existentzialistaren aroko testutzat jotzen ditu liburu horiek. Aldiz, bigarren aroko hirurak *Biziaren ikurrak* (1992), *Zentzu antzaldatuen poemategia* (1992) eta *Egunguentziaren esku izoztuak* (2008) gizaki indibidualaren barnetasuna, sufrimendua eta bilaketa espiritualaren lekukotza ematera datozela esaten da. Hor helduko dira maitasunaren eta errukiaren aurkikuntza, kontsolamenduaren eta erredentzioaren jomuga.

Lehen garaiko poesia euskal herriaren kezka kolektiboari eta iraganari nahiz etorkizunari buruzko iradokizunetan murgildua dago; bigarrena, ordea, barnealdera eginiko bidaia bakartia da. Nolanahi ere, inoiz ez zuen alde batera utzi jokabide kolektiboarekiko begirada etikoa, azken uneko lerro artean ere isurtzen da, hala nola Lizardiren asaben baratzaren aipamenean edota *Eskeintza nire aita zenari* izenekoan.

Poesia tradizionalaren ildoan kokatu izan da Leteren obra (Iturbide, 2000) eta beti gogoan hartzekoa da Leteren testuetako era bateko eta besteko aipamenek Homero, Lukrezio, Virgilio, Dante, Hölderlin edo Rilke bezalako aitzindariekin elkarriketan zihardutela. Halere, Xabier Lizardi, Carles Riba nahiz Salvador Espriu bezalako idazleen hitzetan bilatu zuen bermea gehienetan. Hitz batean esanda, lirika klasiko handi baten altzoan hartzen du abaroa, bai erreferentzietan, bai formetan, bai gaietan; alabaina aldian aldiko beste eragin batzuen artean aipa litezke poesia soziala, existentzialista eta surrealisten arrasto nabariak.

Bere poesiaren ibilbidea deskribatzeko asmoz, Letek bere obra poetikoaren epai zorrotza burutu zuen behin baino gehiagotan azken urteetan, eta agian, gazte garaiko testuekiko zorrotzegia ere izan zen. Paveseren aipamena ere hartu zuen ahotan «*Izan zen gizon bat/ saiatu zena, baina ez zuena asmatu*» (2006, 42). Baina, zertan asmatu? Portaera eta anbizio intelektualaren arlora zekarren epai gogor hori, kazetariaren galderek eskatuta. Porrot hitza ere erabili zuen.

Haren irakurle askok ez genuke iritzi horrekin bat egingo. Portaren arloa pribatua da noski, ez da inoren egitekoa poetaren baliotapenen epaile izatea, baina, agian, anbizio intelektualari edo lorpen literarioei dagokienez, egilea bera ez zitekeen izan neur-tzaile egokiena.

Aitzitik, hirurogeita hamarreko belaunaldiaren bizierak, pentsaerak eta kontraesanak sumatu eta adierazteko sentiberatasuna izan zuela baieztatzen dute iritzi kritikoek aho batez. Moldatu zituen testuek beren erpin estetikora eraman zituzten garaiko kezak, eta bizi-esperientzia baliotsu bilakatu zuten gizaldi oso baten sentiera. Gisa berean, garaiko edozein irakurlek suma lezake Leteren poesia irudi indartsuez mintzo zaiola, kolpatu egiten duten zehar aipamenez adierazten duela bere hausnarketa, baliabide dramatikoak, ironikoak, umoristikoak edota lirikoak modu trebez erabil zitzaizkeen aldi bakoitzean lortu nahi zuen efektua iristeko. Ez dago hor porrot intelektualik, ez eta hutsarterik ere, ordu ilunenetan erakutsi zuen duintasunean.

Esango nuke horixe adierazi nahi izan zuela 2010eko abenduan haren izena eta oroimena omentzera tanatoriora nahiz elizkizunetara hurbildu zen jende-saldoak. Leteren testuek beraiena ere bazen zerbait esaten zutela adierazi nahi zuten askok eta askok, zeren,

haizeak negar egiten zuen hemendikan pasatzean

Egunetik egunera egunen gurpillean (1968) liburuan daude Euskal Herri osoan ezagutzen diren *Altzateko jaun*, *Poeta horiek*, *Bedeinkatua*, *santifikatua* bezalako testuak. Lore gorrien balada izeneko poema har dezakegu horien lekuko:

«Zelai ertzeko lore gorriak
Neguak zapuztu ditu
Neskatxaren ezpain eriak
Nork lezazke laztandu
Gure herriko baratzak dira
Lorerik gabe gelditu»

Neskatxen ezpain gorrien zauriek, zeharbidez, bere duintasuna diruagatik saldu duenaren zimelduraz hitz egiten dute, zapalduta bizi zen herriaren miseria sozial, politiko eta kulturalaz. Ez dago azalpen luzeen beharrik agertzeko poema honek aberatsekin ezkontzen diren neska gazteen kasuen aipamen konkretuaz gizarte auzia iradokitzen zuela. Garaiko isiltasun behartuaren muga-mugetan mintzatzen da egilea, modu agerian esan ezin dena iradokiz. Errepara diezaiegun testuaren bi bertsoiei, liburukoa eta abestikoa. Biak alderatuta, esaterako, suma litezke autozentsuraren zantzuak: 1968ko testuan zioenaz «*gizonak zeinek maiteko ditu illunetik irtetzean, zeñiek maiteko ditu justiziaren bakardadean*» (EEOG, 73) gazte espetxeratuaren errealitatea iradokitzen zen «illuna», «justizia» eta «bakardadea» hitzek osaturiko gune semantikoaren bitartez. Kantu gisa grabatu zen aldakian «*gizonak zeinek maiteko ditu kartzelatik irtetzean*» bilakatu zen.

Leteren hizkuntza poetikoaren soiltasuna nabaria da. Adierazkor mintzatzen da ni poetikoa:

«*Saminez diot:
loreak zeñiek jarri zituen
elizako aldaretan
nagusiak ekarritako
zillarrezko ontzietan?*»

Entzun nahi duenarentzat identifikazio ukaezinak egiten ditu poetak, dirua «nagusia, zilarra», «Eliza/elizako aldaretan» eta «justizia/iluna» artean. Horiei aurka jartzen zaizkie «gazteak/ezpain eriak» edota «lore gorriak/ herriko baratzak». Lehenak dira gazteen ametsak haustearen errudun, neguak zelai ertzeko lore gorriak zapuztearen erantzule. Hitzen konnotazio indarra areagotzen du zentsurak beharturiko hizkera analogikoak: hitzen ohiko esanahitik haratago dauden edukiak iradokitzeko gaitasuna igartzen du irakurleak, testuinguruak ematen baitizkio deskodetzeko giltzak.

Xalbadorrek esperantzarik gabeko amodio gaztearen porrota iradoki zuen antzeko irudiaz: «*Martxoko hormak galduko duen lore pollit goiztiarra*» zen bere bihotz penatua. Letek irudi beraz mezu ezberdina iradoki zuen, baina irakurlea ez zen galtzen, lerro artean irakurtzen ikasia baitzen. Ildo beretik, poetak galdera egiten dio haizeari zergatik egiten duen negar hemendik pasatzean, baina ez du erantzunik jasoko, «*Maiteaz galdezka*» dabilela, Jainkoaren erantzunik jasotzen ez zuen gisa berean:

«*arratsaren illunak eguna bildu zuen*
Jainkoak inundikan ez zidan erantzun»
(*Abestizak eta poema kantatuak*, 54)

Garaiko poeta sozial gehienak baino irudi gordinagoez mintzatzeko ausardia hartzen du Letek, eta ez dio ukorik egiten analogiaren alde asimetrikoak ere behar den guztian adierazteari:

«*Diruak mintzo egiten badu*
neskatxen bihotzean
birjinak hautsiko dituzte
ezkontzako arratsean»

Mezuaren ortodoxia ideologiko edo erlijiosoaren gainetik dago etika pertsonalaren eskakizuna Leterentzat. Beragan sakon sustraituriko gizalege batek darama inplikazio sakonagoetara. Auzia ez da sinplea, zanpatuak berak bere hondamendian duen ardurara ere esan behar da.

izarren hautsa denboran zehar bilakatu zen bizigai

Bigarren poema liburua (1974) izenekoan aurki daitezke *Izarren hautsa*, *Nafarroa Arragoa*, *Sinesten dut*, *Hala ere*, *Hitzez hitz* eta oihartzun sakoneko beste hainbat testu ezagun. Garaiko euskal gizartean utopia sozial eta politikoen ahotsa bilakatu zen bere poesia, baina kezka existentzialaren eta krisi erlijiosoaren adie-

razle ere bai. Gizarte arazoak, kezka existentziala eta erlijiosoa batera aurkezten dira hirurogeietako hainbat idazletan, hala nola, Joxe Azurmendi (*Hitz berdeak* 1971), Juan Mari Lekuona (*Mindura gaur* 1972), edo Bitoriano Gandiaga (*Hiru gizon bakarka* 1974), eta Leteren bigarren liburua ildo berekoa da. Pentsamendu molde horren adierazle estetiko aipagarria da *Izarren hautsa* kantua eta beste nonbait xeheki aztertzeko aukera izan nuenez (Egan, 2005 eta 2007) ez dut oraingoan aipamen soila besterik egingo. Letek bere poema diskurtsiboen artean kokatzen zuen testu hori, materialismo dialektikoaren konpendio argumentatuegia ote zen iradokiz. *Altzateko Jaun* ere molde berekotzat hartzen zuen.

Baliteke Leteren balorapen hori bere azkenaldiko poetikaren bilakaeraren ondorio izatea, hots «esperientzia haragitua» kalifikatu zuen poetikaren irizpideen araberrako neurketaren ondorio. Halere, testuaren eduki ideologikoarekin bat etorri ala ez, haren eite tinko eta dotorea nabari dezakegu, oraindik duda izpirik gabe. Ahozko literaturaren, bereziki bertsolaritzaaren era bateko eta besteko oihartzunetan bermatua sentitzen dugu, esanaren naturaltasunaz eta komunikatzeko gaitasun apartaz jantziriko testua begitantzen zaigu. Urteen joanak itzali ez duen atxikimendua sortzen du entzuleengan, eta horren arrazoitzat aipa liteke ideien arteko oreka, neurria eta klasikotasun balioa. Ideologiak gorabehera, «sinesten dut» otoitzaren solemnitate liturgikoaz ehundua dago eta oihartzun hori eraginkorra gertatzen da.

Orokorrean, berezitasun halako batek ukitzen du bere lehen bi liburuetako poesia hori: ikuskera ilun, kezkatu eta etsikorrak blaitzen du, baina, era berean, bizitza egarri handia adierazten du, norabide eskakizun aseegin batek orientatzen du galdeketa eten-gabea. Camus idazlearen existentzialismoaren zantzuak nabari daitezke etsipen ekintzaile horretan. Leteren hausnarketa filosofikoa eta etikoa da neurri handi batean. Ulertu egin nahi du modu arrazionalen, eta errealitate sentsiblearen barne dinamika eza-gutu, hautu etikoa egiteko. Bestela esanda, *Izarren hautsan* bezala,

Sinesten dut poemaren baitan aurki daiteke Leteren belaunaldiko- en hausnarketa filosofiko eta sozialaren formulazio oso bat, giza- kia bere osotasunean hartzen duena, maila pertsonalean eta unibertsean, baina garai hartako Euskal Herriaren errealtate sozialari eta politikoari ere begiratzen ziona.

Urte gutxiren buruan, ordea, Letek formulaturikoa bezalako fede utopikoak urratu egiten dira. Ideia filosofikoetan Nietzsche, Heidegger eta Wittgensteinen filosofien eraginez positibismoaren funtsak zalantzan jartzen dituzten mugimenduak hedatu ziren gure artean, progresoreen printzipioaren ordenamenduak funtsa galdu eta errealtatea ezagutzeko ezintasunaren susmoa hedatu zen. Utopia sozialen gainbehera eta haien errealizazioen infernu totalitarioak ezagutu ziren sasoi bertsuan, Euskal Herrian aldake- ta politikoak heldu ziren azkenik, baina ez zituzten era bateko eta besteko espektatibak bete, eta desenkontu fenomeno nagusitu zen, oso epe laburrean.

Ihesa zilegi balitz

Urradura dramatiko horien lekuko izan zen *Urrats desbideratuak* (1981). Leteren estetikan aldaketa gertatu zen eta gaztaroko ga- rraztasuna, ironia nahiz umorismo bufoiaren erabilera baztertu zituen. Inguratzen zuen errealtatearen kritika urragarria eta ideia jasoekeko kitapenak modu satirikoan egiteari utzi zion, nihilismo- ra zeramalakoa. Ihesbideetara jo zuen lehen urraspide hartan. Batzuetan, iragan mitikora egin zuen *Ilion* izenekoan; besteetan, lu- rralde amestuetara, *Habanera* kantuan bezala; edota *Ihesa zilegi balitz* bezalako testu biribiletan mamitzen da, tankera existentzia- lagoa hartuz.

Aberri dohakabearen errealtate kolektibo laido garri batetik ihes egin nahiaren adierazpen da liburua, lotsak eta espantuak zimurtzen dute kontzientzia. Liburuaren amaierako bi testuak, *Aberria orain* eta *Epilogo* bezalako poemak, hitz zehatzez min- tzo dira, desenkontuaren izenean, lilura utopikoen gainbehera etsigarriaz:

«*Eta aberria, orain,*
lotsaldi eta erorka guzien izendapena zait:
atari horretatik begiratu ditut egunsentiak
gertakizun harrigarriei alferrik itxoinaz.»
(*Aberria, orain, 77*)

Poetaren ibiliek osatzen dute urrats desbideratuen labirintoaren egitura, eta poemek errealitate hori asumitzeko ezintasunaz mintzo dira, zeren

«*azkenean gogoetak hilerri baterik daude*
gurutze erdoiltu, belartzar eta sasiz»

Adierazteko moldea ametsgaiztoetako surrealismoz kutsatzen da, zentzugabeko errealitate bati buruz mintzatzeko. *Epilogo*a izena daraman azken poeman, pasilloan pilatzen diren zapata bustiak dira bilaketa neketsu eta fruitu gabearen lekukotza patetikoak. Noizbait indartsu, kritiko eta aldarrikari izandako poetaren ahotsak ez du orain sineste finkorik edo mezu bortitzik formulatzeko, okerreko bidea seinalatzeko beldurrez, ez dauka hitz zakarririk ere. Ezereza amildegia da orain, onartezina:

«*kristo! Birao baten pretentsiorik ere ez*
Bideak baitira labainak haserrearen ezerezeruntz»
(*Epilogo, 79*)

Biographia

Hamar urteren buruan argitaratu zituen hurrengo bi liburuak eta *Zentzu antzaldatuen poemategia* (1992) nahiz *Biziaren ikurrak* (1992), parametro indibidual eta intimoaren alorrekoak dira gehienbat. Bilakaera horretan zerikusi nabarmena izango du aipaturiko desenkantua, baina baita gaixotasun larri baten esperientzia oinazetsuak ere. 1986tik aurrera, giza izatearen hauskortasunaren esperientzia gailenduko zaio, eta, heriotzaren

hurbiltasuna ideia abstraktua izatetik, errealtate gordina eta pertsonala bilakatzen da. 1986-88ko osasun-krisi latzetik aurrerako testuak aldaketa espiritual horren lekuko nabariak dira. Bizitzako gertakariei begiratzeko zentzumenak bestelakoturik ditu, antzaldatuak.

*Biziaren ikur*ren hitzaurrean adierazi zuen Letek barne-biografia baten tankerako zerbait konfiguratzen zutela liburuko testuek, eta esperientzia erlijioso bat adierazteko bidea bilakatu zirela. Testugintza ere arlo horretako literaturari lotzen zaio, otoitz eta salmoekin, letania eta bestelako molde estrofiko klasi-koekin. Horren emaitza umotua da *Biziaren ikur*ra *Biographia*. Izpirituaren biografia halako bat da, Rainer Maria Rilkeren poema baten hasierarekin abiatzen dena eta pertsonaren bilakaeraren kronika poetiko bilakatua. Arnasa handiko testua da, bizitzaren dohainen, ordu zoriontsuen eta garraztasunen arteko oreka hausnartuaz mamitua:

*«Nire izatearen ordu ilunenak maite ditut orain
Haiek zirelako kontzientziaren ingude garratza,
Itzaltzeaz delarik zentzu iratzarren lorezko baratza,
Ezin baitut hazia gatzak estali zuen lur antzuan erein.»*

Azken hiru liburuetan Leteren poesiagintza barnekoi eta izpirituala bilakatzen da. Leteren bizi egarria eta argitasun eskaria, sufrimenduaren arragoa ikaragarrian, bilaketa izpirituala bilakatzen da eta ezinbesteko behera beharraren akatamendua. Onarpenezko hitzak dira *Biographia* horren azken lerroak:

*«Ez du idatziko liburu zaharrean mutu eta gorrak
Zorabio batean nahasten direlarik begi hain nabarrak:
Azken arnasarekin ordainduko ditugu antzinako zorrak»
(Biziaren ikurak, 73)*

Aldaketa espiritualak aldaketa estetikoak ere badakar berarekin. Leterentzat ezinbesteko da orain sublimazio espiritualak, aldi

berean estetikoa, filosofikoa eta erlijiosoa dena. Naturaren aurrean, edertasunaren aitzinean edota bizitza misterioen aurrean, jarrrera «harritu» edo «sublimatzailea» hartzen du. Bere esanetan, gizakiaren gaitasun erredimitzaile bat da transzenditzeko gaitasun hori.

Bat egiten dute horretan Leteren eta Lizardiren poetikek. Letek zarauztarrari eskaini zizkion poemen sakoneko arrazoia bien izpiritualtasun eta ikuskera estetikoaren funtsezko batasuna da, izan ere, bientzat *«poesia zauri bat da lehenik bihotz begietan»* (2008a, 122).

«Ez zintuzten nehoiz zentzu erneek

Izadi ederraren miraritik baztertu

Eta muino berdeetan aldatu zenuen

Izpirituaren lorei xumea.»

(Joan zirenei, I, Xabier Lizardiren gorazarrez, 2008, 121)

Biografiaren bihurtuneetan, gaixotasunaren eta heriotza hurbilaren kontzientzia beldurgarrian dimentsio berri batean kokatzen da poeta: kontenplaziorantz eta hausnarketa estetiko, filosofiko eta erlijiosorantz orientatu da. Estetikaren intentsitateak eta transzendentziaren egarriak bat egiten dute azken liburu-ko hainbat pasartetan, bere hitzen bidez adierazteko, *«Azken finean nik uste dut edermena, jainkomena eta emozioen mundu sako-
n ezin direla bereizi»* (2008, 204).

Paisaia eta naturaren osagai txikien obserbazioa eta izendape-
na dimentsio poetikoan kokatzen da, eta ezagutza espiritualaren
eremuan elaboratzen. Erlijioari lotzen zaio sarri Lete paisaiaren
inguruko hausnarketaren unean, zeren, naturaren aurrean, bera
baino handiagoa den errealitate batekiko miresmenez harritzeko
gaitasuna berreskuratu du. Gune horretan sumatzen du existen-
tzia fisikotik harantzago doan zerbaitekiko errespetua izan leza-
keela, baita zentzu erlijiosoan ere. Horregatik, erlijioaz ari
denean, Lete *«harriduraz transzenditzen gaituena akatatzeaz»* min-

tzo da, eta ez fedeaz. Jainkoa misterio bat, eta beti alboko gelan dagoen ezezagun bat bada ere, otoitz egitea eta sinestun moduan bizitzea aukeratzen du, aterpe espirituala baita transzendentzia Leterentzat (2006:191).

Testuok poesia erlijiosoan sartu dira, baina zehatzagoa litzateke bilaketa izpiritual guztiz pertsonal baten testigantza direla esatea. Fede modu irrazional bati atxikitzen zaio, Blas Pascal pentsalari frantsesaren esana bere eginez: «*argudioak ditu bihotzak adimenak alkantatzaten ez dituenak*» (2006, 204). Eta Leteren bihotzaren arrazoiak zein diren jakiteko *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuko azken testua irakurtzea da aski, fede erlijiosoari baino gehiago eusten baitzion maitasunean zuen fede hunkigarri bati:

«Jaso nazazu, maite, azken egunean,
Zatoz nire bidera eta adeitsu, irriz
Dei nazazu nire izenez
Ni zure erruki handian salbatua izan nadin»
(203-204)

Eta barnearen barne barneratuetatik

Poesiaz gogoeta bat izeneko liburuxkan hausnarketa orohartzailea egin zuen Letek poesiari buruz. Bere ideia poetikoen «manifestu» laburtzat har genezake: «*Poesia neurri handi batean, esan ezin diren gizakumearen atal horietaz zerbait esan eta zerbait argitu nahi izatea da. Jakituria sakonaren pareko izan daiteke, adimenak esaten asmatuko ez lukeena hizkeren hedatze harrigarri egiaztatuko bailiguke, gizatasunean eta egitasunean gu bermatuz*» (2008b, 20-21). Ildo berekoa zen sintesian 1974ko *Xalbadorren heriotzean* erabili zuen «*inoiz esan ezin diren estalitako egien*» formulazioa ere. Esan ezina denaz ari da, beraz, poeta bere kautan: maitasunaz, heriotzaz, gizateriaren bizitzaren zentzuaz, aberriaren iraganaz eta etorkizunaz duen sentimenduaz...

Bistakoa da Letek hizkuntza poetikoaren transzendentzia indarrean sinesten duela, erreferente nabarmen guztietatik harata-

goko oihartzun harrigarritz betea den esparrua dela beretzat, giza-kiaren barnetasuna aldarrikatzen duena, pozez, penaz, hutsunez eta oinazez, bere zauri guztiekin eta lehia itsuenekin. Bere esanetan, bizitza galbide erredimiezina den arren, heriotzarekin lehian pentsatzen omen dugu gizakiok, halere, eta poesia egiten poetek. Horregatik, galeraren esperientzia horren aurrean, poesia iragenera eginiko bidaia malenkoniak betea da, gogoeta bat eta begiratzeko bat noizbait aberriaren lurraldeak izan ziren haietara (2008:28). Hona liburutik hautaturik erreztatzen zuen testua

*«Azaroko arratsaldean elurra ikusi dut
Bianditz mendiaren hegala-gailurretan,
xuri hartan begirada itsatsirik
“berriz ere neguaren atarian”
esan diot ahots apalez nire buruari,
zer nolako hunkidura elur xuriena
nerabeak ginenean herri galdu hartan...
(...)
Gaur, izan ginen hartatik
ia ezer ez denean geratzen
berriro xuriz jantziak ikusi ditut mendiak,
ekialdeko bortuetara begiratu dut hunkitua
eta barnearen barne barneratuetatik esnatu zait
denboraren abaraskaren pean
estalia zegoen kantua:
Goiko mendian elurra dago, errekaldean izotza.»
(2008a, 146)*

BIBLIOGRAFIA

- Lete, Xabier, *Egunetik egunera orduen gurpillean* (Edit. Cinsa, 1968)
- Lete, Xabier, *Maitasun kantu laburra* (1969)
- Lete, Xabier, *Bigarren poema liburua* (Gero, 1974)
- Lete, Xabier, *Urrats desbideratuak* (Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1981)
- Lete, Xabier, *Zentzu antzaldatuaren poemategia* (Euskaltzaindia-B B K, 1992)
- Lete, Xabier, *Biziaren ikurrak* (Edit. Erein, 1992)
- Lete, Xabier, *Deusetik izatera* (Edit. Itxaropena, 1977)
- Lete, Xabier, *Udazkenean: (irukoa)* (Itxaropena, Ernani Saria 1970)
- Lete, Xabier, R. M^a Rilkeren «*Orduen liburua*» [Soinuzko grabazioa] (Pamiela, 2004)
- Lete, Xabier, Angel Lertxundi eta Juan Mari Lekuona, *Xabier Lizardiren olerkiak* (Erein, 1983)
- Lete, Xabier, Angel Zelaieta, Anjel Lertxundi *Xabier Lizardi: olerkari eta prosista* (Jakin, 1974)
- Iturbide, Amaia, B. *Gandiaga*, J.A. Artze eta X. *Leteren poemagintza* (Erein, 2000)
- Otaegi, Lourdes, «Xabier Lete. Izarren hautsa», *Egan*, (2005, 71-88)
- Otaegi, Lourdes, (2007) «Xabier Lete. El poema Izarren hautsa» *Cien años de poesía, Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y Vasco: estructuras poéticas y pautas críticas*. Joana Sabadell-Nieto, J. Kortazar, Lucía Fraga y José María Paz Gago. (Editorial Peter Lang. Berna. Suiza, 521-534)
- Otaegi, Lourdes, *Lizardiren poetika Pizkundearen ingurumariaren argitan*, (Erein, 1994)

Xabier Lete: guztien lana guztien esku

Joxerra Garzia

Zaila da, oso, aztertzaileari guztiz urrutiko eta arrotz gertatzen zaion zerbait behar bezala aztertu eta ulertzea, aztergaiarekiko gehiegiko distantzia eta gutxiegi atxikimendua oztopo gaindiz gaitzak baitira azterbidean, mundu akademikoan besterik uste bide badute ere, zoritxarrez.

Hori bezain arriskutsua da, ordea, aztergaia gertuegi edo maiteegi izatea, eta horixe da, hain zuzen ere, niri Xabier Leterekin gertatzen zaidana: nire nortasunaren zati ezinbesteko bihurtu dela (zaidala, dudala), gertuegi eta maiteegi dudala azterketa gutxieneko objektibotasunez egin ahal izateko.

Nahi ere ez dut nahi, egia esan, Xabier Lete objektiboki aztertu. Oraingoz ez, behintzat. Etorriko da –etorriko ahal da– horretarako garaia ere, baina orain, Xabier hil zenetik urte erdia ere igaro ez denean, dolurako garaia dugu oraindik. Gero arrazoiak bere lana txukun egingo badu, aurrena emozioena kitatu beharra daukagu. Xabierren inguruan, haren omenean edo aitzakian, elkartu eta geure poz-oinazeak sublimatzeko garaia dugu oraindik. Beraz:

*«bide batetik okertu gabe
esan dezagun bertsua;
ixil-ixilik kanta dezagun
euskaldunen sekretua»*

Ondorengo lerroetakoa ez da, inola ere, Xabier Leteri buruzko azterketa akademikoa, baizik eta nire barne sentipen baten kontu emate halakoa, subjektiboa bezain zintzoa, zintzoa bezain subjektiboa.

Ezin esan Xabier lagun izan nuenik, ez behintzat hitzaren ohiko adieran. Aurrez aurre lehen aldiz hitz egin genuenerako, Xabierren aspaldiko miresle nintzen ni. Esan ohi da hobe dela bere

obrarengatik miresten dugun artista pertsonalki ez ezagutzea, baina, kasu honetan behintzat, Xabier aurrez aurre ezagutzeak ez zidan harekiko mirespena zapuztu, areagotu baizik. Geroztik, hainbat une eta egoeratan egokitu ginen elkarrekin Xabier eta biok, eta hari mutur horietatik tiraka osatu dut sasi kronika nahasi (ez krono eta ez logiko) hau.

I

Nondik edo handik hasi behar, eta 1991. urtean hasiko naiz. Ordu-rako ezagutzen nuen Xabier pertsonalki, baina data ez da guztiz arbitrarioa. Batetik, urte horren jiran behin baino gehiagotan egokitu zitzaidan Xabierrekin egotea edota aritzea; bestetik, urte horretako neguan, *Plazara* aldizkarian egin zioten elkarrizketa luzean, oso deklarazio interesgarriak egin zituen Xabierrek (sarean da elkarrizketa hori osorik, ikusi nahi duenik balego). Kontuak kontu, 1991. urtea ardatz edo mugarri gisa irudikatzen dut nik Xabier Leterekiko: hantxe egiten dute bat orduko iraganak eta artean etorkizun zenak (orain hori ere —gauza gehienak bezala— guretzat iragana den arren).

Hitzetik Hortzera programan ari nintzen ni aipatu urte hartan. Bertso munduan sarri aipatzen zen bat-bateko bertsoen eta bertso jarrien arteko kontrastea, zeinen bizi eta sendo zegoen bat-batekoa, eta zeinen geldo eta pattal bertso jarria. Hori dela eta, programan bertso jarriei tartetxo bat egitea otu zitzaidan eta, jakina, ez nuen asko pentsatu beharrik izan nor zen bertso jarriei arnasa emateko pertsonarik egokiena.

Izan ere, kanpotik inork eskatu gabe ere, bertso klasikoak berpizteko bi saio bikain egina zen Xabier Lete, besteak beste eta nagusiki Antton Valverderekin batera: bi disko bikoitiz, bertso zaharrekin osatua bata, eta Txirritaren bertsoekin bestea, biak ere 1970eko hamarraldian (bidenabar esanda: sarri ahanzten —edo isiltzen— bada ere, aitortu beharra dago klasikotzat jotzen diren bertso gehien—gehienak bertso jarriak direla, ez bat-batekoak). Niretzat ez ezik, belaunaldi bat baino gehiagorentzat ere

funtsezkoak izan ziren bi disko horiek, bertso tradizioa kulturen plazaren erdi-erdian kokatu zutelako, gozagarri.

Duela gutxi, Xabierri Bilbon egin zitzaion omenaldi bat tarteko, Antton Valverderekin hitz egiteko aukera izan nuen, eta bertso kontua ere izan genuen hizpide. Arnas hotsari ere *copyrighta* jarri nahi zaion garaiotan harrigarri badirudi ere, gaur egun bat-bateko bertsolariek barra-barra erabiltzen dituzten bertso doinu batzuk Valverdek berak, edo Letek, edo biek sortuak dira. «Bertso doinu batzuk», idatzi dut arestian, hain zuzen ere Valverdek berak ere ez dakielako zenbat diren eurek sortutakoak.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa orduko hartan nik Xabier Leterengana jo izana. Bai, ordea, Xabierrek nik hitz erdi esan orduko desafioa onartu izana. Kopuru zehatza ez daukat gogoan, baina hogeitaka bertso sail grabatu zituen Xabierrek. Gero *Hitzetik Hortzeran* aldiko bat eskaini bagenuen ere, bi saiotan grabatu genituen bertso guztiak, Miramongo plato batean. Nik hartu nuen gozatua, ez da hitzez erraz azaltzekoa; beti bezala, bertsoekin euren adina (edo gehiago) gozatu nuen bertso sail bakoitzari Xabierrek egiten zion aurkezpen hitzalditxoekin (eta, dena esaten hasita, baita grabazioaren atsedenaldietako solasaldiekin ere). Telebistak baditu bere sorginkeriak, eta grabazioak antolatzeke modu hark ikusle jator baten kritika izan zuen ondorio: primeran zegoela Xabier Lete kantari jartzea, baina negargarria zela aldiro jertse bera jantzita ateratzea telebistan... Egia esan, ez zen guztiz horrela, lehen grabazio saiotik bigarrenera aldatu egin baitzuen jertsea. Bi jertseak estilo berekoak ziren, hori bai.

Bertso zaharrak biziberritzeaz gain, asko eta asko dira bertsolariek beren jardunerako hartu edo egokitu dituzten Xabierren kantu doinuak (*Habanera* eta *Haizea dator Iparraldetik*, azken aspaldian erabilienetako bi baino ez aipatzearren).

Dolu osteko azterketan, Xabier Leteren merituen balantzea egiterakoan, eman ohi zaion baino garrantzi handiagoa eman beharko zaio, nik uste, bertso munduari egindako ekarpenari. Besteak beste, honako galdera hauek egin eta erantzun beharko ditugu:

zer eskaintzen zion bertsoak Xabierri, beste kultur produktuek eskaintzen ez ziotenik? Zer zen bertsotan gehien estimatzen zuena (dialektika, ideien dantza, formulazioak...)? Zer irizten zion gaur egungo bertsogintzari?

Bakoitzak bere Xabier Lete izango du, noski, baina Xabierrek bertsolaritzarekiko beti ere beti erakutsi zuen atxikimendua aintzat hartzen ez duen balantzea ez da soilik subjektiboa izango, propio desitxuratua eta makurra baizik.

Izan ere, Xabierren bertsozaletasunak eta bertso lanek traba egiten bide baitio zenbaiti. Zenbait horien artean, batzuek poesian bakarrik aitortzen diote Xabierri bere maila, edota poetakantari moduan.

II

Nire akorduan bateratsu doaz bi jarduera horiek. Gogoan dut Bartzelonan ikasle nintzela, Burgosko epaiketak pasatu berri, gurretzat, erlijioa galdu eta euskara aurkitu berritan, geure burua ulertzeko ezinbestekoak zirela Xabierren orduko poema eta kantuak: «gizona kartzelan sartu dute», «behingoz utzi zezala zeru goi isila»...

Xabierren handitasuna zer bakar batean adieraztera behartuko banindute (bortxaz beharko du baina), zera esango nuke nik: belau-naldi oso baten (edo gehiagoren) mundu ikuskera (kezka, balio, bel-dur, itxaropen, aldeko zein kontrako erreferentzien bilduma) hitzetan formulatzen maisuki asmatu izana dela Xabierri gehien estimatzen eta miresten diodan dohaina. Nik neuk, sarritan sentitu izan dut amorrutik gertuko sentipen halako bat Xabierrekiko, neuk sentitua berak hain egokiro formulatuta aurkitzean, Sarrionandiak zioenaren bidetik (bide batez esanda, nago ez ote den horixe Xabierrek Xenpelar, Txirrita eta abarrengan gehien estimatzen zuena).

Hortik aurrera, eztabaida daiteke ea lorpen hori poetari ala kantariari dagokion. Xabierrek berak ematen duen azalpena, bertso munduan bat-bateko bertsoa eta bertso jarria bereizteko erabiltzen denaren oso antzekoa da:

«Bi mundu izan dira, gezurra badirudi ere, ez kontrajarriak, baina bai diferenteak, eta nik beti sentitu eta bizitu dut kontradikzio hori, konturatu izan naizelako kantatzeko testuak beti direla diferenteak, poesiarako idazten dituzunekin konparatuta. Zergatik?: hala ateratzen dira, jeneralki. Kantatzeko gaiek, dirudienez, ulerterrazagoak izan behar dute, gero hizkuntzaren aldetik ere libertade gehiago eskaintzen diozu zeure buruari kanturako testuak idazterakoan, hizkuntz arazoak modu popularrago edo xumeago batetan moldatzen dituzulako, eta poesian, behar bada, gehiago konplikatzen dituzu testuak. Orduan, beti egon da hor kontradikzio bat. Nik beti pentsatu izan dut poesia idatzia eta argitaratzekoa gauza bat dela, eta beste bat dela kantatzekoa, eta orain ere hala uste dut. Poeta izan naizen momentuetan, behar baldin bada, sentitu naiz konplikatua adierazpenetan, baina kantatu dudanean konplikazio horiek limatzen eta espresio plastiko zehatzagoa ematen saiatu naiz. Kanta batetan esaten diren gauzek eta erabiltzen diren imajinek izan behar dute ulerterrazagoak, eta hori nabarmena da. Poesian, berriz, hori ez da hain beharrezkoa, zeren eta poesia leitzen da behin eta berriz, eta hasieran iluna izan daitekeen kontzeptua edo irudia, gero argitzen da.»

(Plazara, 1991ko negua; hemendik aurrerako prosa-aipu guztiak ere elkarriketa horretatik hartuak dira)

Mirespena mirespen, ez dirudi oso estu hartzekoak direnik Xabierren hitzok, kanturako propio sortutako hitzekin batera hasiera-hasieratik musikatu baitzituen berak idatzitako poemak, eta elkarriketa horretan aurrerago Xabierrek berak dioena ere bide horretatik doala esango nuke:

«Hala ere, azken bolada honetan, entseiatu nahi nituzke poesia-tik musikarako bide zuzenagoak. Azkeneko liburuan joango diren poema batzu orain kantatu ditut, eta hemendik urte betera egingo dudan disko horretan, gehienak poesia liburuan doazen testuak dira. Nahiko nuke ahalegin bat egin testu horiek kantarako balioztatzeko. Ez dakit zenbateraino lortuko dugun, baina nahiko nuke

orain idatzi ditudan poema filosofikoago horiek kanta bihurtzea, eta elaborazio zehatz batekin, eta gaien aldetik ez batasuna, baina bai kidetasun bat egon dadila kanten aldetik, atmosfera berdintsu bat, lotura formal batzu...»

Itxuraz, gauza bat eta haren kontrakoa, biak esaten ditu Xabierrek aipu horietan, eta horixe da, nire ustez, Xabierren ezaugarriak behinena: ez dela eskema manikeo batera errenditzen ahal. Xabierren diskurtsoan ez dago zuri-beltz banaketa erabatekorik. Zurian bilatu beharra dago beltza, eta beltza zurian. Ez poesia-kantua bikoteari dagokionez soilik, orokorrean baizik.

Nire ustez poesia eta kantua, biak dira komunikazio tresna, bakoitzak bere arau propioak dituen arren. Nik garbi daukat Xabierren eragina askoz txikiagoa izango litzatekeela, bere obra idatzira mugatu izan balitz, hitza kantu bihurtu izan ez balu. Euskal kantagintzan ohorezko lekua du Letek, eta ez bakarrik bere kantuen hitzengatik. Alde horretatik, sutu egiten naiz Xabier kantari kaxkarra zela entzuten dudanean, hori dioten irizpideen arabera Bob Dylan ere kantari txarra izango bailitzateke. Kantari ona, ordea, ez da ahotsa akademiaren arabera darabilena, entzuleengana iritsi eta haiengan eragiten duena baizik. Eta, alde horretatik, gutxi dago munduan Xabier Lete bezain kantari onik.

Dolu osteko azterketa, nire ustez, geure izateari eta egoerari dagozkien irizpideen arabera egin behar dugu, ez kanpotik ezarri nahi dizkigutenen arabera. Konplexurik gabe, alegia, batez ere ikusita Lete kantari txartzat duten askok inolako lotsarik gabe diotela Sabina kantari ona dela.

III

Kantu eta poesian, bietan ere hitza da, nolanahi ere, Xabierren arma gorena. Eta hitzak, Enzensbergerrek esango lukeen bezala, badu alde deseroso bat: nahi ez dela ere, zer edo zer esan beharra

dago, alegia, nahiz gaur egungo kantari askok eta telebista-programatzaile gehien-gehienek nahiago luketen deus ere esan gabe jardutea.

Xabierrek, berriz, zerbait esan nahi duelako idazten du, eta kantatu ere horrexegatik du kantatzen. Denboran zehar, gai asko jorratu ditu Xabierrek bere obran. Esango nuke, hala ere, beti txikitik ari dela, formula topiko erabatekoetatik ihesi, pertsona eta bere txikitasuna abiapuntu eta helburu duela. Ideologia handimandien garaian, behin eta berriz gogorarazten digu berak «gurdi okerra zuzen lezakeen dotrinarikan ez» duela, edo «bat-bateko librakuntza» ez duela aspaldi sinesten. Gutako batzuek, garai hartako modari jarraiki, geure buruaren satira garbia ikusten dugu orain garai batean amorragarria zitzaigun *Teologia, ideologia* kantuan. Nola ez zitzaigun ba amorragarri gertatuko, bete-betean asmatzen bazuen gutako askoren ibilbidea:

*«...foileto batzuk eman diozkate
hutsaren truke, debalde,
Marx eta Lenin irakur ditzan
gehiegi nekatu gabe:
hiru astean egiten zaigu
fede berriaren jabe.»*

Erabateko ideologiaren kontrako jarrera hori dela eta, batzuek beren ikur bihurtu nahi izan dute Lete, Xabierren meriturik handiena «balio demokratikoen defendatzaile sutsu» izatea balitz bezala, Urgell kultur sailburu anderearen hitzetan esateko.

Egia esan, Xabier ez da osorik irensten erraza. Horrek, ordea, ez digu eskubiderik ematen, Xabierren figura guri komeni zaigun neurrira ekartzeko. Dударik gabe, Xabier beti agertu izan zen balio demokratikoen defendatzaile, eta abertzaletasuna ulertzeko modu jakin baten kontra:

«Nik ikusten nituen postura batzuk, baikor itxurakoak, sentitzen nuen bazutela atzetik karga oso negatibo bat, eta gero gertatu den zatiketa

izugarriaren hazia han zegoen. Orduan, gaizki sentitzen nintzen optimismo faltsu harekin, eta abertzaletasun itxurazkoaren mundu harekin. Dena zen heroiko samarra, eta nik susmoa nuen hor faltsukeria asko zegoela, eta opzioak ere eztabaidagarriak zirela.»

Sarkasmoaren muga zeharkatzea da, ordea, hori euskal identitatearen aldeko ahaleginei zilegitasuna ukatzeko erabiltzea:

«...internazionalistak sentitzen zirenak, erdi marxistak, edo ez marxistak, eta horiek oso kritikoak hasi ziren sentitzen Euskalerraren zenbait balore tradizionaletikiko, eta, klaro, nik hori ikusten nuen, eta ikusten nuen, baita ere, ze historiak sortzen ari ziren.../... nik hori pis-ka bat kanpotik begiratzen nuela, eta barneratu nuenean, atera zitzaidan oihu bat esanez “Euskalerrri nerea ezin zaitut maite / baina nun biziko naiz zugandik aparte”, bigarren partea nire koda zen, baina beste batzu hor geratzen ziren, «ezin zaitut maite» horretan, edo “nazkatua nago”, edo “ez dut sinisten balore hauetan”...»

Euskalerrriarekiko Xabierren harremana, nire ustez, Joxe Azurmendiren poema batek adierazten du egokien, eta ez da kasualitate poema hori Xabierrek kantu bihurtu izana:

*«Kate honek lotzen nau,
Kate honek nau hiltzen,
Kate honen gogorrak
Nau ederragotzen»*

Ez dut uste kantu hori grabatua daukanik Xabierrek. Nik Ez Dok Amairuren emanaldietatik ezagutzen dut, eta ez zait berehala ahaztuko zer-nolako zirraraz eragiten zidan kantu horrek.

Hiltzen nauen horrexek nau ederragotzen: kontraesanak nahitaezkoak dira pentsamendu konplexuan (eta, bestalde, konplexua ez dena apenas den pentsamendu). Espazituki esana utzi zigon hori Xabierrek zein den aurrera egiteko bidea:

*«ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz.»*

Euskara eta euskal identitatearen katean ezinbestean lotuta, euskara ikur huts bihurtzearen kontrako amorratua zen Xabier. Duela urte batzuk, Josean Goikoetxeak *Innervisions* bere diskorako hitz batzuk idazteko eskatu zion Xabierri. Handik laster, Xabierrek jakinarazi zion baietz, idatziko zuela testua, baina gazteleraz. Arrazoia: nazka-nazka eginda zegoela berak euskaraz idatzita zeinen melenga geratzen zen gaztelerara halamoduz itzultzen ziotelako. Pasadizoak grazia berezia du niretzat, bueltan-bueltan neuk itzuli behar izan bainuen Xabierrek gazteleraz idatzia, eta ez da munduan jende asko izango horrelako lanik egindakorik. Gure D eredu, euskal adar, buletin ofizial eta euskarazko publizitateetan dabilen euskara ikusita, sarri gogoratzen zait Xabierren jarrera.

IV

Urte batzuk lehenago, ni Euskadi Irratian eta bera Gipuzkoako Foru Aldundian ginela, elkarrizketa luze bat egin nion. Grabaziorako ordu pare bat falta zirela agertu zen (Diputaziotik bertara zegoen orduan Euskadi Irratia, Andia kalean). Trago pare bat egin genuen elkarrekin, eta, mikrofonoak irekitzeko zorian zeudela, galdetu nion ea nola hitz egin behar genuen, hika ala zuka: «orain arte hika jardun diagu, ez?», izan zen bere erantzuna.

Denetatik hitz egin genuen elkarrizketa hartan. Xehetasunak aspaldi ahantzita ditudan arren, gogoan dut luze jardun zuela Xabierrek heriotzaz, artean gaixotasunaren arrastorik ez bazuen ere. Modu batean edo bestean, bizitza heriotzak egiten duela jasagarri, horixe esan zidan. Komunikazio kontuez aspaldian arduratzen naizen aldetik, ezagutu ditut hiztun eta hizlari on, trebe eta egokiak (bestelakoak gehiago, baina). Inor ez, ordea, ez lehengo ez oraingoetan, Xabierren mailakorik. Esateko zuenera erabat ego-

kitutako hizkera eta erregistroan beti, bai pasadizo xelebreak kontatzen zituenean, bai barne gatazkarik korapilatsuenaren berri ematen zuenean.

Bere mundualdiko azken urteetan, nabarmena da heriotzak eta heriotzaren osteko nolabaiteko transzendentziak presentzia handia hartzen dutela Xabierren obran. Ezin esan, ordea, ezer berririk denik, 1991ko hitzok kontuan hartuta:

«... Materiak bere legeak ditu, eta ez dakit lege horiek norbaitek ezarri dizkion ala ez, baina ezarri baldin badizkio ere, gero materiaren legeak autonomoak dira. Eta gure arrazoia ere, autonomoa da eta librea, eta ni razionalista naiz, eta libreprintsadorea izan behar dela uste dut. Materialista izaten segitzen dut, eta uste dut hori kontziliatu daitekeela, edo uztartu daitekeela, nahi baldin bada, sinismen edo fede batekin.»

Arrazoia, fedea, kristautasunaren oihartzun halako bat, panteismoa... Xabierrek arragoatzat jotzen du Nafarroa bere kantu ezagunean, baina nago ez ote den Xabier bera arragoarik arragoena.

Garbi dago transzendentziaren kontu hori ez zela izan gaixotasunaren ondorio. Hasiera-hasieratik ageri da joera hori Xabierrengan. Haren obran (bai poemetan, bai kantuetan) aroak bereizten hainbat saio egin izan da. Hemen behin eta berriz aipatzen ari garen *Plazara* aldizkariko elkarrizketa hartan, elkarrizketatzaileak hiru aro proposatzen dizkio Xabierri, haren kantagintzaz ari dela: lehena, existentzialista; bigarrena, festa-girokoa (bertsoak barne); eta hirugarrena, barnekoia. Xabierrek erantzun luzea ematen dio, baina erantzunaren hasiera esanguratsua iruditzen zait, oso:

«Nik esango nuke kantatzen hasi nintzenean oso gaztea nintzela, poesia idazten ere hasi berria..., ezjakina nintzen, oso. Ez bakarrik letra aldetik ezjakina, baizik eta bizitzari buruz ere.»

Dolu aldia amaitutakoan, Xabier behar bezala aztertzen hasitakoan, haren obran joera, estilo eta aroak bereizi beharko ditugu, ziur asko. Kontuz, ordea, erabateko bereizketekin. Izan ere, Txirrita eta Brassens, Xenpelar eta Brel, batera daude Xabier Leteren baitan. Kritika soziala eta surrealismoa ere sarri uztartzen ditu, gorago aipatu dudana *Teologia, Ideologia* kantuko Adan hura, Marx eta Lenin hain azkar ikasi zituen, adibidez, ondo modu surrealistan iristen da Bilbora:

*«Adan badoa triste ta mutu
paradisua galduta
Bilbo aldera ailegatzen da
gaueko trenea hartuta.»*

Esan dut lehenago ere, baina ez naiz esaten nekatuko: ezer bada, konplexua da Xabier Leteren. Alde horretatik, garbi dago beste euskal artista batzuk baino irensten zailagoa dela, nabarmena da hori erakundeek eta hedabideek batzuei eta besteei eskaintzen dieten tokian eta egiten dieten harreran.

Osorik irentsia izateko zailtasun hori da, ordea, Xabier Leteren baliorik handiena, are gehiago gurea bezalako herri sarritan ukatu eta sarriagotan urkatu batean. Xabierrek berak hori eskatzen zuen, duela hogeitun urte:

«Gaur, alde horretatik, harrituta nago, zeren eta iruditzen zait gure gizartea askoz ere sinplista goa bihurtu dela; arazo ideologikoak, sentimentalak, balore eta edukie buruzko gogoetak, eta arazo formalak ere —estetikoak, hizkuntzarekikoak, modu etikoak...— nik uste dut konplejoagoak zirela orduan, eta ikuspuntu desberdinaoetatik tratatzen zirela. Gaur ez dagoen halako konplejidade bat bazegoen abertzalego deituko genukeen mundu horretan.»

Xabier Leteren osorik, aise eta eroso kabitzeke moduko herria eraikitzen saiatzea, horixe da guri dagokiguna. Horretan asmatzen badugu, denontzat izango da onura. Bestela, bakoitzak kome-

ni zaion puska bakarrik hartzen badu aintzat, ez dugu atarramentu onik izango.

Batzuek ukatu arren, bi identitatearen arteko talka bizi dugu aspaldian hemen. Erabat eraiki gabe dugun identitatearen izenean astakeria latzak egin izan ditugun arren, ez da astakeria makalagoa identitate handi-mandi bat (edo bana) ezarritz gurea eraikitzeko zilegitasuna behin eta berriz ukatzea, zer eta aniztasunaren izenean.

Euskal herritar guzti-guztiek dute eskubidea Xabier Lete eza-gutu eta gozatzeko. Dolu aldiko gure kantu, kontu, omenaldi eta enparauak amaitzen direnean, beraz, Xabierrek guretzat duen xarmaren gakoak aurkitu eta argitu beharko ditugu, ikerketaren bidez, hori gabe ez baitago eskubide hori bermatzeko modurik:

*«Gizonen lana jakintza dugu:
ezagutuz aldatzea...»*

Lan horretan gure erakunde (gobernu, aldundi, unibertsitate) nagusiek jokatuko duten papera ikuskizun dago, baina aurrekariak ez dute baikor izateko aitzakia askorik eskaintzen. Nolanahi ere, horretan (kultura txikiko handien handitasuna kultura handian bizi direnei jakin eta sentiarazten) aitzindari eta bultzagile lana egitea lukete kulturen aniztasunaren leloa sinesgarri bihurtzeko modu bakarra.

Bitartean, zer gerta ere, hobe dugu Xabier Leteren erreferentzia begien bistan edukitzea beti, Altzateko Jaun halako baten gisa:

*«Gure izatearen testigu zuzena
makurtu gabeko zuhaitz lerdena
desertuko haizeak legortu ez duen lorea
itsasoaren kolorea, hor zaude zu.»*

Xabier Leteren musika

AnttonValverde

Hitzak eta doinua

Xabierren musikaz aritzerakoan ezinezkoa da aparteko, isolaturiko atal bat bezala aztertzea. Garbi dago tresnatzat erabili zuela bere mezua besterengana helarazteko. Horretarako egin zituen kantak. Eta emaitzak goi mailakoak izan daitezen, elementu guztiak onak izan behar dira. Poesiaren kalitateak ez du zalantzarik sortzen eta, esan dezagun hasieratik, doinuaren kalitateak ere ez. Hau ez da, baina, nahikoa: behar-beharrezkoa da olerki bakoitzari doakion musika jartzea; eta horretan maisu izan genuen Xabier.

Dioguna zergatik diogun ikusteko, gogora ekarri ditzagun kanta pare bat. Ezagunak dira eta ez zaizue gehiegi kostatuko, hurrengo lerroak irakurtzen dituzuen bitartean, barrutik berderen kantatzea:

Maiteaz galdezka: Gerora bere lanetan beti azaltzen digun kezka planteatzen du poema honetan; horretarako sortu duen doinua sakona da eta erraz eta sentimenduz kantatzen dena. Interesantea da behin eta berriro indarrez errepikatzen duenean «*zutaz maite egina dut galde*».

Kontrapas: Esan balidate herrikoia dela ez nintzateke harrituko. Ezin hobeto uztartzen dira poesiaren garapen motza eta errepikapenak frase musikarekin. Lagun artean pozik abesten den kanta horietakoa, dudarik gabe.

Hirurogeita hamalagarren urtean kaleratu zuen diskoan daude, baita ere, beste olerkarien poemekin eginiko abesti bi: *Ondar gorri* (Lizardiren *Urte aroak ene begian* poematik hartutako zati bat) eta *Izotz-ondoko eguzki* (Lizardirena hau ere). Komentario bat merezi dutelakoan nago. Azkeneko honetan ematen du Lizardiren lirikak musikagilea kutsatu duela, eta sortarazten diola modu *maiorrean* egindako doinu baikorra eta esperantzaz betea. «*Berrito igo nauzu ene mendira, oroigarri zaha-*

rrei maitez begira» kantatzen duenean, berriz, igoeraren nekea sentiarazten digu; igoera pausatua, igoera astuna, oraindik loretan dagoen huntza nagiak hornitzen duen gurdibidean barrena... Eta «beetik nator ibarrak izoztuta utziak, mendia yaiez dago irrika biziaz...» abestearekin batera, olerkariak sentitzen duen pozarekin kutsatzen gaitu.

Dozenaka jarri ditzakegu adibideak, baina orain era horretako abestiak utzi eta aipatu ditzagun, nolabait esatearren, doinu *pragmatikoak* deituko nituzkeenak. Adibide gisan, hauek: *Teologia, ideologia, Gizon arruntaren koplak* eta *Langile baten seme*. Ez dituzte doinu melodiatsu eta lirikoak, ximpleak eta efektiboak baizik. Kontatu behar dena kontatzeko, garbi dauka Xabierrek musikak ez duela protagonismorik eduki behar. Horretan hainbeste maite zuen abeslari-poeta Georges Brassens zenaren antza hartzen diot. Brassensek ere bere poemetako batzuk musika erraz baten bidez emateko ez zuen batere eragozpenik, nahiz eta beste batzuetan doinu zoragarriak sortu.

Badaude beste zenbait kanta abertzaletasunari, edo maitasunari, edo pertsona eta egoera konkretuei egindakoak: *Lore bat zauri bat, Chile, Nik ez dut amets haundirik, Seaska kanta*, e.a. Gauza bera esango genuke: kasu bakoitzean, gaiari ondo doakion doinua jartzen asmatu zuen.

Kantatzeko estiloa

Ez Dok Amairu sortu baino lehen, zenbait jende adoretzu hasia zen kantatzeko lanetan: Lurdes Iriondo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi... eta Xabier Lete, besteak beste. Gitarra soilez laguntzen zuten ahotsa, eta baldintza tekniko oso eskasetan aritzen ziren: herrietako frontoietan, oholtzarik eta ezer gabe, banketa bat haren gainean hanka jartzeko, mikro txar bat ahoren parean, eta suerte pixka batekin beste bat gitarraren al-tueran. Jende dezente biltzen zen normalean, eta infiltratu gisa *Información y Turismo*-ko enplegaturen bat, zer arraio kantatzen zuten kontrolatzeko.

Baldintza horietan apainduretan galtzea deskalabrua izango zen; hobe zuten indarrarekin abestu eta publikoa bereganatzen ahalegindu.

Garai hartako Xabier Letek ez zuen, horratik, batere problemarik baldintza horietan kantatzeko: ahots indartsu eta garrantz xamarrek, bizar beltz eta ile luzeak, itxura oldarkorra ematen zioten. Eta kantatzen hasten zenean, laster jabetzen zen eszenatokiaz. Gitarrarekin ez zen konplikatzen, akorde elementalak eta beste adornu txikiren bat, garbi-garbi eta sekulan hutsik egin gabe, horrela botatzen zuen bere kantua: dignitate askorekin, indarrarekin, adierazkortasun handiz eta sentimenduarekin. Gainera, hitzak ahoskatzen maisua zen, eta horrek ere publikoarekin harremana sortzeko aukera ematen zion.

Urteek aurrera egin zuten eta kantaldietako baldintzek hobera. Teatro itxietan aritzen ziren batzuetan, anplifikazio ekipa onak zituzten gehienetan, eta musika laguntzaile trebeak agertu ziren: biolontxelo, esku-soinua, baxu elektrikoa eta, askotan, pianoa. Horrek eragina izan zuen kantatzeko estiloan. Batetik, ez zen beharrezkoa kantaldi osoa garrasika egitea, eta bestetik, egoera politikoaren aldaketak bultzaturik, sarriago eskatzen zitzaizkien abesti intimistak, baladak eta amodio kantak. Hala ere Xabierrek lortu zuen, behar zenean, betiko indarrarekin kantatzen jarraitzea... osasunak lagundu zion bitartean behintzat.

Gero etorri ziren garai okerragoak. 1985az geroztik gorputzak ez zion deskantsurik eman. Ebakuntzak bata bestearen atzetik, eta gero eta ahulago. Azkeneko urteetan, horri erantsi behar zaio Lurdesen heriotza. Bere intimitatean eta poesiagintzan errefuxiatu zen, eta hor utzi dizkigu azken olerki eta sentimenduak, *Egunsentiaren esku izoztuak* izeneko liburu zoragarrian.

Kantaldi bat

Kantautoreen lanak bi une ezberdin ditu kanta bakoitzeko: sorkuntza unea eta jendaurrean kantatzekoa. Bigarren honi ga-

rrantzi handia ematen diot nik, sorkuntzaren nahitaezko osagarria dela iruditzen zaidalako. Abestia ez da hitza eta doinua bakarrik, jaialdi batean ematen den modua ere bada. Aurrekoa ondo uler dadin, gure kantaldietako bat nola egiten genuen kontatuko dut.

Berdin Bermeon edo Oiartzunen, jaialdia hasi baino lau edo bost ordu lehenago antolatzaileekin elkartzen ginen azken detaileak zehazteko. Argiek eta mikrofonoek ordurako prest egon behar zuten, eta probak egiten hasten ginen. Kantaldia antzoki batean egin behar bazen gauzak nahiko agudo eta ondo preparatzen ziren; baina herriko frontoian tokatzen bazitzaigun, orduan hasten zen kalbarioa. Neguan pasatzen genituen hotzak eta hezetasunak ez ziren nolanahikoak. Oso zaila eta garestia izan ohi da frontoi bat berotzea, eta hotza pasatzen genuen. Entseguak eta probak egiten hasiak ginenean bisi-tak zetozen: inguruko irrati-emisorako bi edo hiru gazte hurbiltzen ziren Xabierrekin elkarrizketa bat grabatzeko asmoz, edo herriko ikastolako neska-mutiko talde batek maisuak jarritako debereak zekartzan. Denek nahi zuten Xabierrekin egon: entrebista eta argazki batzuk, galdetegi bat bete, edo auskalo! Horrela pasatzen zen denbora, eta entseguak korrika eta presaka bukatu behar izaten genituen. Publikoa etortzen hasia zen eta kanpoan zegoen, ateak ireki zain.

Aurreko egunetan egiten genituen entseguetan kantak auke-ratzen genituen, eta zerrenda osatu. Baina kantatzera gindoa-zen lekuaren arabera aldaketa batzuk egitea pentsatzen bage-nuen —batez ere frontoia bazen, edo antzokia—, taberna batera joaten ginen, papera eta boligrafoa hartuta, errepertorioa erre-pasatu eta ordenan jartzeko.

Ni naiz kanta gustatzen zitzaion Xabierri hasiera emateko. Lau edo bost abesti serioren ostean *katxondeozko* bat sartzen genuen, giroa pixka bat lasaitzeko. Eta taktika horrekin jarrai-tzen genuen kantaldiaren azken aldera arte, non gure iritziz ga-rrantzizkoenak ziren abestiak programatzen genituen.

Behin aipatutako abestien ordena edo gidoia bukaturik, antzoki edo frontoirako bidea hartzen genuen, jaialdia puntual hasteko intentzioarekin. Eszenatokira atera eta, besterik gabe, *Ni naiz* zetorren; gero jendeari agurra eta eskertzea, gu entzuzera hurreratzeagatik; gero musikarien aurkezpena banan bana, bakoitza zutitu eta txalo batzuk jasoaz. Ondoren, kanta bakoitzaren aurretik, Xabier azalpenak ematen hasten zen. Abesti serioetan, serio gainera. Beste poeta baten olerkiren bat kantatu behar bagenuen, horretaz aritzen zen, haren literatur estiloaz, haren garaiaz edo beste edozein detailez. Giroa arintzeko botatzen genituenak aurkezterakoan beti lortzen zituen jendearen barreak. Horrela iristen ginen errezitaldiaren amaiera aldera. Bukatu zela esaten zuenean, jendea *beste bat!* eskatzen hasten zen. Guk gehiegi luzatu gabe botatzen genuen propina.

Kantaldia bukatutzat eman eta jaso behar genituenak jasotzen hasten ginen. Gero, kotxean sartu eta, nekatu arraio eginda, etxera.

Aldaera txiki batzuk gorabehera, horrelakoak izaten ziren gure kantaldiak.

Musika-egitura

Kultura musikal handikoa zen Xabier. Era eta aro guztietako autoreak eta obrak ezagutzen zituen. Kontzertuetara maiz joaten zen, eta etxean disko bilduma txukun bat zeukan. Hala ere, musika estudio ezak batetik, eta zerabilen instrumentua nahiko modu elementalean jotzeak bestetik, asko mugatzen zuten haren lana, batez ere hasierako urteetan, berak jotako gitarra soila zuelako lagun bakar. Denborarekin beste musikarien laguntza izango zuen, eta baita beste maila bat lortzeko modua ere.

Kanta batzuetan dominante, subdominante eta tonikaz baliatzen zen bakar bakarrik, noizbehinka zazpigarreneko akorden bat sartuz. Beste kanta batzuetan *modua* aldatu ohi zuen (*maiorretik minorrrera* edo alderantziz), eta gehienetan, zegoen

tonutik errelatibora pasatu ohi zen. Mugarri horiek markatzen duten eremuan sortzen ditu Xabierrek bere melodiak.

Esandako guztiari, ordea, erantsi behar zaio aparteko sentsibiltatea eta intuizioa. Bestela ulertezina da nola sortu dituen doinu batzuk, sortu dituen moduan. Harrigarriak iruditzen zaizkit, esate baterako, *Alzateko jaun, Izotz-ondoko eguzki, Ondar gorri, Xalbadorren heriotzean*, eta beste zenbait kantaren doinuak.

Oiartzungo kantaldia

Aurrean doazen lerroak idazteari utzi diot egun pare batez, Oiartzunen Xabierren omenez egin berri dugun kantaldia preparamatzeko. Berarekin ibili eta bere kantaz eta poesiaz baliatu ginen abeslari eta talde zenbaitek hartu dugu parte. Kiroldegia betetzen zuten mila eta bostehun lagunekin batera gogoratu eta kantatu ditugu *Alzateko jaun, Maiteaz galdezka, Chile, Lore bat zauri bat, Haur andaluz bati sehaska kanta, San Martin, azken larrosa, Gizon arruntaren koplak, Heriotzaren begiak, Ni naiz, Nafarroa arragoa, Izotz-ondoko eguzki, Kontrapas, Errota zaharra, Xalbadoren heriotzean* eta abar luze bat —hiru orduz aritu gara—. Benetan esan dezakegu bai publikoa, bai antolatzaileak, baita abeslariak ere, harrituta gelditu garela, nahiz eta aurretik ere ezagutzen genuen, denon begi eta belarrietara ekarri dugun aberastasun musikarekin. Eskerrik asko, Xabier, utzi dizkiguzun dozenaka kanta eta doinu ederrengatik. Ziur nago, urteen eta moden gainetik, luzaro iraungo dutela gure eta gure ondokoen artean.

Oinarrizko bibliografia eta diskografia

Xabier Mendiguren Elizegi

Xabier Letek literaturari egindako ekarri nagusia bere poesia liburuak osatzen dute, eta hauexek dira Letek argitara emandako poema-bildumak:

Egunetik egunera orduen gurpillean (Cinsa, 1968)

Bigarren poema liburua (Gero, 1974)

Urrats desbideratuak (Gipuzkoako Kutxa, 1981)

Zentzu antzaldatuak poemategia (Euskaltzaindia-BBK, 1991)

Biziaren ikurrak (Erein, 1992)

Egunsentiaren esku izoztuak (Pamiela, 2008)

Sei liburu ageri dira zerrenda horretan, baina egiazki bost direla esan liteke, *Zentzu antzaldatuak poemategia* eta *Biziaren ikurrak* liburu bera baitira funtsean: bata literatur lehiaketa bateko saritzailerak argitaratua eta bestea argitaletxe komertzial batek. Lete aski kritikoa zen bere aspaldiko testuekin, eta gaur egun azkena baizik ezin liteke topatu liburu-dendetan. Besteak eskuratzeko, liburu-tegi onetara jo behar.

Horien ondoan jartzekoa litzateke, dudarik gabe, Leteren kanten hitzak (ez guztienak, egileak berak egindako aukeraketa baizik, itzulpen batzuk ere barne direla) biltzen dituen liburua, idazleak testuinguruaz emandako beste hainbat jakingarri ere badituen:

Abestitzak eta poema kantatuak (Elkar, 2006)

2008ko bere azken liburuarekin batera opari gisa banatu zen Letek bere poetika azaltzen zuen liburuxka:

Poesiaz gogoeta bat (Pamiela, 2008)

Leteren poesiaren aukeratxo bat gaztelaniaz irakurri nahi duenak, berriz, liburu kolektibo honetan aurki dezake:

Siete poetas vascos (Pamiela, 2009)

Gauza jakina da, bera poeta izateaz gainera, beste poeta batzuen lana bereziki maite eta miresten zuela. Horren frogagarri geratu zaizkigu, han-hemen egindako kritika, artikulua eta hitzaurreez gainera, talde lanean idatzitako liburu hauek:

Xabier Lizardi, olerkari eta prosista (X. Lete, A. Lertxundi, A. Zelaieta) (Jakin, 1974)

Juan Mari Lekuona hurbiletik (J. M. Lekuona, L. Otaegi, X. Lete) (Eukaltzaindia, 2008)

Aipa ditzagun, azkenik, hainbaten artean idatzitako beste hiru liburu, egilearen kezken esparru zabalaren berri ematen digutenak: garai batean antzerkian lan egin eta sakondu zuen, Eugenio Arozena-arekin batean Oiartzungo Intxixu taldean; erlijioa kezka bizia izan zuen bere azken urteetan; eta gai politiko nahiz sozialak ere beti izan zituen gogoeta iturri:

Antzerkia deuseztik izatera (X. Lete, E. Arozena) (Itxaropena, 1977)

Heriotza bizi (X. Galardi, X. Lete, M. Arrieta) (Idatz, 2007)

Hitz lau (K. Izagirre, R. Saizarbitoria, X. Lete, A. Lertxundi) (Egunkaria, 2003)

Xabier Leteren diskografiaren berri zehatza nahi duenak badok.info webgunean du informaziorik zabalena. Guk hemen grabazio nagusien zerrenda hutsa egingo dugu:

Xabier Lete: Kantariaren izen hutsarekin hiru disko daude, Herri Gogoak 1968an eta 1969an kaleratutako bi EP (lau kanta bakoitzak), eta Artezik 1974an atera zuen LPa.

Lurdes Iriondo-Xabier Lete: Bi kantariak elkartuz, Herri Gogoak kaleratu zuen EP bat 1969an; eta izen berarekin LP bat disketxe berak 1976an (Xabierren lehen bi EPak, Lurdesen bat eta bien artekoa batuz).

Ondorengo guztiak disko luzeak dira; azkena, berriz, bere kanten bilduma gisakoa. Liburuak ez bezala, diskook merkatuan jarraitzen dute, nahi dituenaren eskura.

Kantatzera noazu (Artezi, 1976)

Lore bat, zauri bat (Herri Gogoak, 1978)

Eskeintza (Elkar, 1991)

Hurbil iragana (Elkar, 1992)

Leteren kantagintzak beste adar handi bat ere hartzen du: bertso kantatuak. Esan liteke berak deskubriarazi zizkiola bertsolari zaharrak hainbat eta hainbat euskalduni, Julen Lekuona eta Antton Valverderekin batean 1974-76an egindako grabazio gogoangarri haien bitartez. Gero, 2001ean, zazpi diskoko bilduma zabal bat osatu zuen, bertsolaritza zahar nahiz oraintsukoaren sortarik gogokenekin.

Bertso zaharrak (Herri Gogoa, 1974)
Txirritaren bertsoak (Herri Gogoa, 1976)
Lazkao Txiki (Elkar, 2001)
Basarri, Uztapide (Elkar, 2001)
Elizanburu, Etxahun, Otaño (Elkar, 2001)
Xalbador (Elkar, 2001)
Txirrita (I eta II) (Elkar, 2001)
Xenpelar, Bilintx (Elkar, 2001)

Azkenik, poemak errezitatuz bi disko-liburu kaleratu zituen: bata gogoko poeta baten testu euskaratuekin eta Karlos Gimenezen musikaz, bestea bere azken liburuko poemekin eta Joxan Goikoe-txearen soinuaz.

Rilke: Orduen liburua (Pamiela, 2004)
Neguan izan zen (Pamiela, 2009)

Poema antologia labur bat

Bide ezkutua

Harria, egurra, sua, ura
burnia

odola
trena

barkua laiñoa

lau piku
sei eltze

tamiza, katea, polea
litro erdi bat ardo

Naparroatik
ekarria.

Ideak, pentsamentuak
koraje gutxi,

Aizpurutxo-ko erretore gitarra jotzallea
eta

bere anima
kondenatu nahi duten
zazpi milla etsai.

Alkia

eliza

pakea

dirua,

bankero jauna,

atoz

peka-

taria.

Kartzelako ateak laixter
itxiko dituzte.

Igande arratsaldeetan

jendeak
daukan

festarako gogoia,
trajea
zapatak

korbata
soiñeko berria
trolebusa
urdaiazpiko bokadilloa
kafea

kopa
ta puroa.

Jende asko
negar asko
bero asko.
Izerdia
kea
letxe-txarra
Avenida-ko señoritoak
Monaco kafetegia
kalegarbitzaillea
eta haren alaba
Lolita,
ez baida
oso polita
eta gaiñera...
gaiñera...
Astelena
asteartea
asteazkena,
Viet-Nam-go

gerra
nork asi zuen
eta nork
bukatu behar du.

Piñudiak, galaxiak
Alfa
Beta
Gama,
poetaren fama txarra
eta beste horrelako milla
txorakeri.

Giroa, kidea, bolara,
proposizioa
oposizioa
lehiaketa,
ikatz almagarenak
eta morala:
zeharo debekatzen dizuet.

Piper potea
tomate makilla
aitzurra traktorea
plan de ordenación
(iñoiz egiten ez dena)
gibela
urdalla
sahetsa,
requiem
requiem
requiem.
Burnia

kea
 katea
 alicatea,
 SO_4H_2
prosperidadearen abotsa.
 Oquendo kalean
 Zeruko Argia
 eta
 inpernuko itzala.

Nere lagun batek
oso kabreatuta zegoen
egun gogoangarri batean
 botatako
 maldizio bikaiña,
«nik nahi — nahi nik — nahi —
 nahi nik nuke nahi
 nik nuke
 nik
 hik
 k...»
(Geroztik oso ixillik dago)

Gure izakera jatorra,
 meza
 ezpatadantza
euskera gaxoa
 dibidendoak
 belarrimotzak
 koreanoak
hiru milla peztako
 soldat ugaria,
 amurruiak
elkarri mokoka

beste harrek
esan
zuen
bezela.

Nagusia
morroia
langillea
enkargadoa
kapataza
pioia.

Eskallera, igeltsua, arrastoa,
gabeko hamarterdiak
Amsterdam-go erlojoan.

Merkatu Batua,
zelofan papera
diskursoa
promesa
programak
sistemak
etxeak sindikatoak pakea
ordena.
San Agustin-en filosofia.
Kontuz ibilli
komunismoarekin,
balio dezuna
ordainduko dizut
ez gehiago
ez gutxiago.
Ni ez nauk politikan sartzen...

Laratzean sua
baratzean tipulak
txuleta jatea
bizitza lasai eta ederra
alajaiña,
alajaiña.

Marmita bete esperantza,
maitasun berri bat bihotzean.
Etorri dedilla hoiek
kendu nahi dizkidan
majoa.
Mundu gaxoa
hain zahar ta hain gaztea,
oraindik
ikusi behar
dituzunak.

(1968)

Ni ez nintzen txori

Ni ez nintzen txori
Orhin
baina han nengoen
Orhin
eta Xiberuatik lanbroa zetorren
Orhira:
lanbro hestu harek
biltzen ninduen
Orhin.

Negarrik gabe
Orhin
kabi hustu hartaz
gogoetak nerabilzkin
Orhin
itsasoko lurrinak
Orhin
biloak bustitzen zizkidan bitartean
Orhin.
Gogoetak narabilzkin
Orhin
eta melankolia
pozoin desiragarri bilakatu zen
Orhiko bortuetan,
Orhiko bortuetan
arranoek
jatekorik ez zutelako
beste bortu batzutara
ihes egin behar izan zutenean
Orhitik.
Ez arrano
ez kilkir

Orhin,
Orhiko deserriratuen oihua
nabaituz
oihua oihartzun
Orhin
oihartzun minberagarria
Orhiko bortuetan.

Orhiko txoria
ez zegoen
Orhin,
eta lanbroak
tristura hura
izkutatu egin nahi zuen
Orhiko bortuetan.

(1974)

Malkoak euri balira

Malkoak euri balira
udazken traidorean
maitalerik gabe
kolpez bazter utzia
emazte adintsua
gertatzen denean
ehun hodei ilunen
jasa izugarriek
kaleak uholdeka
itoko lituzkete,
errotik garbituko
ohizko zekenkeriak
hondakinez gainezka
dituen bihotzak.

Malkoak euri balira
kupirarik gabe
haurtxo baten gorputza
gerra izugarriek
burniz eta metrailaz
hausten dutenean,
ama denen oihuek
espantuzko irrintziz
izoztu lezakete
entzumenik ez duen
itsaso zabala.

Malkoak euri balira
adoleszente baten
ezpain oihukariak
harresi baten kontra
torturaren espantuz

zauri direnean
etxerik altuenak
lotsaz eror litezke
gizadi osoa
redimitu nahirik,
eta lore bakarrek
entona lezakete
ehortze letani bat
zerraldo gainetan.

(1981)

Ez harrotu

Ez harrotu, bidaiari gotor,
argialdi bitxi eta bakanetan uste izateagatik
adimenez makurrerazi zenitzakeela
zure indarren gainetik dituzun arau eta neurriak.

Begira eguerdi zabaleko emaitzei,
udako garisail, oliondo hain marraztuei,
nola eskeintzen dizuten, zure arduretatik at,
edertasun osoaren geometria.

Ausart bazintez pentsatzera
jainko izkutukoei diezula ebatsi
intelektoaren argi mirestua,
jakin ezazu gero ez dagoela zugar
izpiritu betierekoaren egoitza.

Sufrimentua, oinazea, eskasia zarela zu,
eta aberri eragotzi batetara
muino galduetatik begiratzea.

Eta zure oroitzapen ttikiari
zor dioten begiramen hunkitua
bizidunen egunerokotasunetik hain azkar desagertzean,
hor jarraituko dutela garisailek,
mahastiek, lur ederraren geometriek,
eta itsaso beti hasiberriak.

(1992)

Dena eskatu genion

Eskatu, dena eskatu genion bizitzari
argia, gozamina, jakituria,
paradisuetako hondartzetatik
herbesteratuak izan ginen arte...
baina trenek gauerdietan
xixtuz iragarritako bidaia
helmuga harrigarrietara egitean
ni ere bidaiari izanen naiz
bizidun ororen edalontzia hondarreraino hustuz...
baina birlotua orain uneari, orduei
urruneko hiri ederren itxaropenik gabe
larrosen urrinaz oroitzen naiz
eta gorputz jainkotuen erakartasunaz...
hor jardin isila baratxondoaren ezkutuan
etxearen ibilgune beti berrasmatuak
oihan hezearen abaroa mendi hegaletan
eta palmondoen itzalean
dohain eta emaitzen ekialdeko itsasegiak...
haruntz noakizue betirako, ametsen galbidetik
adiskide maitatu gaur ia ahaztuok.

(2008)

XIV

Hondar harrigarri bat geratuko da soilik
ase ezin zen begirada harena,
zure gau eta egunak iharrausi baitzituen
babes eta erantzunik eskaini gabe.

Haiek iragan ziren,
arratsaldeko andere misteriotsuak,
eta ahotsak eta usainak
baina deus ez zen zuretzat izan,
kea eta ausentzia baizik.

Lehia hartan ez zen gailurrik egon
eta ez zenituen lortu zure ahalegin saiatuaren fruituak,
horrela, mundua ezabatzen joan zen
zure arima bakar, desanparatuaren zoruan.

(2008)

Hiri ttipi hartako geltokian (Ama trenetik jaitsi zenekoa)

Hiri ttipi hartako geltokian
itxarongo dizut goizaldean,
begiak erne, zentzuak esna,
eta egun berriaren irteera
dizut adieraziko eguzki gorriaren itsasorduan
landak lanbroaren artetik
dorre altuetan desziurtzen direlarik.
Nahiz eta zuk, nekearen menpeko agian
edo iragan urratu baten lausopean,
soseguaren gunerik ez aurkitu
mirarien erresuma berreskuratzeke.
Urrundu zitzaigun denboraz
arituko gara, ezarian,
edo gogoeten hariak
beste hilerri batetara eramanen gaitu.
Gero egunek ilunabarreruntz jarraituko dute
atsedenik gabeko lasterkan
eta urteen joanean
geltoki berdinean egonen natzaizu zain
gure bidaiak
hiri baten babeslekua aurkitu dezan
azkenean.

(2008)

Urtarrileko eguerdi batean

Urtarrileko eguerdi batean igo nintzen
gailurrean datzan hilerri isilera,
galdutakoei erreoparia eskaini nahi izan nien
baina hain nengoen eskuhuts
hain umezurtz, hain herabe
ez bainuen adorerik izan argizari bat pizteko ere...
atsekabearen ordu besteratuak ziren
kulpa eta oinazea intzirioka direnetakoa
gertakizunari zentzuzko hitz bat eman nahi diogunean,
baina ezin, hain ezinesana izaki heriotza...
orduan ibarrean eliz kanpaiek jo zuten ordua
eta begira jarri nintzen poetaren lurraldeari,
zer naiz ni, oihukatu nuen barneruntz,
haren hitz eder errukitsuetan antzaldatur
gizatasunean bermatua izan dena baizik,
ez gaude bakarrik, eresiek, poemek laguntzen gaituzte
eta bizitzaren muinean oinazea antzeman zutenek,
haiekin nengoke, haiengan naiz
joan zirenekiko azken enkontrua arte...
eta negar egin nahi izan nuen
hautsi, hustu landa babesgarri haietara,
ederresten nuen arbasoen aberrian ahuspeztu,
aitortu, amore eman, apaldu, senidetu,
norbaitek irakatsia zidalako
gizagotzen gaituzten amodioen hiztegia.

(2008)

